

Aurkibidea. Errenta eta Ondarea 2016 - Laguntza

[Programaren funtzionamendua](#)

Errentaren aitortpena

Filiazioa

- [Filiazio datuak](#)
- [Harremankideen datuak](#)
- [Ordezkarria](#)

[Aitortpen-likidazioa – Arrunta](#)

[Aitortpen-likidazioa – Laburtua](#)

[Ondarea](#)

Beste tresnak batzuk

[Oharrak](#)

[Abisuak](#)

[Beste aukerak](#)

Programaren funtzionamendua

[Funtzionamendu orokorra.](#)

[Aitortpenak inprimatu](#)

[Aitortpenak bilatu](#)

[Tresnak](#)

[Nola instalatu sarean](#)

[Aurkezpen telematikoak](#)

Aitortpen-likidazioa (Arrunta)

[Laburpen pantaila](#)

Etekinak

Ondare irabaziak eta galerak.

Ondare irabaziak eta galerak

Ondare galeren konpentsazioa. Aurrezki oinarria.

Ondare galeren konpentsazioa. Oinarri Orokorra.

Txikipenak

Oinarriak. Egozketak / Konpentsazioak

Kuota osoa

Kenkariak

Atxikipenak eta kontura egindako sarrerak

Emitza

Higiezinaren Errentamendua (Errentatzailearen datuak)

Higiezinaren Errentamendua (Errentariaren datuak)

Etekinak

Lanaren etekinak

Kapital Higigarrien etekinak

Kapital higigarria. Oinarri aurrezkoa

Kapital higigarria. Oinarri orokorra

Kapital Higigarria. Finantza aktiboen eskualdaketa

Higiezinaren kapitalaren etekinak

Jarduera ekonomikoen etekinak

Jardueren etekinak

Jarduerak, laburpen pantaila

Zuzenekoa, arrunta

Zuzenena, erraztua - Orokorra

Zuzenena, erraztua - Nekazaritzak eta abeltzaintzak

Zuzenena, erraztua - Baxurako Arrantza

Zuzenena, erraztua - Merkatalgaien garraioa

[Zuzenena, erraztua - Basozaintza](#)

[Batasunaren politikaren ziozko galerak](#)

[Etekinen integrazioa eta konpentsazioa](#)

Oinarriak: Egozketak / Konpentsazioak

[Errenten egozketa](#)

[Oinarri likidagarri orokorra. Konpentsazioak.](#)

[Oinarri likidagarri aurrezkoa. Konpentsazioak](#)

Kenkariak

[Familiarrak eta norberarenak](#)

Ohiko etxebizitzaren ziozko kenkariak

[Ohiko etxebizitzaren inbertsioak](#)

[Etxebizitzaren laburpena](#)

[Ohiko etxebizitzaren alogera.](#)

[Etxebizitza kontua](#)

[Emariak](#)

[Sindikatuak / Alderdi politikoak](#)

Denetariakoak :

[Inbertsioak jarduera ekonomikoetan/ Zerga-oinarriak ABEEtan eta IETetan](#)

[Beste kenkari batzuk eta mozkin galeragatiko gehikuntza](#)

PROGRAMAREN FUNTZIONAMENDU OROKORRA

Programaren bitartez hainbat aitorten gorde daitezke ordenagailuaren disko gogorrean . Aitorpenok erabiltzeko *Aitorpena* menura jo behar da . Menu horren leihoa irekitzean *Berria, Ireki, Bilatu, Ezabatu eta Inportatu* aukerak agertzen dira.

Berria aukeratuz aitorten berria sortu ahal da. Jarraian agertuko den pantailan aitortzailearen datuak eta, egonez gero, ezkontidearenak edo izatezko bikotekidearenak jarri behar dira derrigorrez. Kenkari eskubidea ematen duten famili unitateko kideen datuak ere jarri behar dira, bidezkoa bada. Garrantzitsua da datuok osorik eta errakuntzarik gabe sartzea, programak kalkulu eta kontrolak egiteko erabiliko ditu eta. Adibidez, ez dago aurrekoen ziozko kenkaririk aplikatzerik aurretik filiazio barruko Harremankideen datuak pantailan haien datuak adierazi ez badira.

Ireki aukeratuz lehendik grabatuta dagoen aitorten bat bistara daiteke, aitortzailearen IFZ edo deitura ipiniz; bigarren kasuan nahikoa da deituraren hasiera idaztea. Programak, jarraian, baldintza hori betetzen duten aitorten zerrenda bistaratuko du.

Aitorten bat irekitzean "Aitortpena ez dator bat oraingo programarekin." mezua agertzen bada, horrek esan nahi du aitorten hori egiteko beste programa bat erabili dela (Erakundeak, Oinordetzak...).

Behin aitorten bat hautatutakoan, Zergari dagozkion kontzeptu guztiak biltzen dituen menu orokorra agertzen da. Menu horretan, gainera, kontzeptu bakoitzean dagoeneko sartuta dauden emaitzak agertzen dira, etekinenak zein kenkarietak, eta bai aitortzailearen, ezkontidearen, seme-alaben eta baterako aitortenaren azken emaitzak ere, eta aukerarik komenigarriena adierazten du.

Kontzeptu jakin baten pantaila irekitzeko, kontzeptuaren ezkeraldera dagoen botoia klikatu behar da edo bestela goranzko eta beheranzko geziak bidez lerratu eta intro tekla sakatu.

Pantaila guztiek dute antzeko diseinua, denak ere inprimaki ofizialaren arabera taxutu baitira. Hartzaile eta kontzeptu bakoitzeko zutabe edo lerro bat sartu behar da.

Pantailan mota edo gako diren eremuak agertzen direnean eta haietan zer jar daitekeen ez badakigu, kurtsorea gainean jarri, intro sakatu eta leiho bat irekiko da balio zuzena hautatu ahal izateko.

Errentan eremu numerikoetan gehieneko zenbateko onargarria 9.999.999,99 da, programak ez du errenta aitorten inprimatuko emaitza eremuak 9 zenbaki baino gehiago badauzka.

Ondarea eremu numerikoetan gehieneko zenbateko onargarria 99.999.999,99 da, programak ez du ondarearen aitorten inprimatuko emaitza eremuak 11 zenbaki baino gehiago badauzka.

Ondarearen balio numerikoa eremuan gehieneko zenbateko onargarria 99.999,99 da. Balio zenbakiak zenbateko hori gainditzen badu, kontzeptu hori behar bezain beste lerrotan banatu beharko litzateke, eta zenbatekoak, proportzionalki, lerrotan zatitu beharko lirarteke.

Programak berez eta aldi berean egiten ditu banako aitortenak eta, behar denean, baterakoa. Beraz, behin datu guztiak sartuz gero menu orokorrera joan eta nahi den aitortpena inprimatu ahal da inprimaki ofizialean.

Aitorten batean **oharrak** jar daitezke **Aitortpena** menuan **Oharrak** hautatuz; hori eginez gero pantaila bat agertzen da eta bertan nahi den testua idatz daiteke; testua une horretan irekita dagoen aitortenari loturik geratuko da.

Bilatu hautatuz gero aitorten kontzeptuen arabera hautatzeko pantaila agertzen da eta hura betetakoan ezarritako irizpidea betetzen duten [aitorten zerrenda](#) agertzen da.

Ezabatu sakatuz gero lehendik grabatuta dagoen aitorten bat hauta daiteke aitortzailearen IFZ edo deitura ipiniz; bigarren kasuan nahikoa da deituraren hasiera jartzea. Programak, jarraian, baldintza hori betetzen duten aitorten zerrenda bistaratuko du, aitorten bat ireki nahi dugunean gertatzen den bezalaxe.

Adierazi dugun baldintza betetzen duten aitorten zerrenda bistaratzen duen pantaila honetan Ezabatu botoia dago. Hura klikatu eta une horretan hautatuta dagoen aitortpena ezabatuko da datutegitik.

AITORPENEN INPRIMAKETA

Aitorten inprimatzeko **Inprimatu** hautatu behar da menu orokorrean; hori klikatu ondoren honako atal hauek agertzen dira:

-Errentaren zirriborroa.

-Errentaren aitortpena.

-Ondarearen zirriborroa.

-Ondarearen aitortpena.

- **Errentaren zirriborroa:** Errentaren aitortpena bezalako agiria inprimatzen du, baina zirriborro moduan. Agiri hau ez da ofiziala eta aitortpena egiteko lagungarria baizik ez da. Orrialde solteak inprimatu ahal dira (ikusi zirriborroa aukeran).

- **Errentaren aitortpena:** Ogasunean aurkez daitekeen Errentaren aitortpenaren agiri ofiziala inprimatzen du. Programa aitortpenak *DIN-A4 tamainako paper zurian* inprimatzeko diseinaturik dago.

- **Ondarearen zirriborroa:** Ondarearen aitortpena bezalako agiria inprimatzen du, baina zirriborro moduan. Agiri hau ez da ofiziala eta aitortpena egiteko lagungarria baizik ez da. Orrialde solteak inprimatu ahal dira (ikusi zirriborroa aukeran).

- **Ondarearen aitortpena:** Ogasunean aurkez daitekeen Ondarearen aitortpenaren agiri ofiziala inprimatzen du (aurkezpen telematikoa derrigorrezkoa). Programa aitortpenak *DIN-A4 tamainako paper zurian* inprimatzeko diseinaturik dago.

Inprimatu baino lehen bi aukera daude:

- Erabili inprimagailu bat.

Inprimagailua behar bezala instalaturik dagoela ziurtatu behar da, berari dagokion driverra duela eta Windows-eko Kontrol Panelaren barruan aurrezarrirako inprimagailu gisa konfiguraturik dagoela.

Aitortpena inprimatu eta ohartzen bazara orrietan ez dela ageri informazio osoa, joan aurrezarrirako inprimagailuaren ezaugarrietara eta murriztu berez ezarrirako ertzak. Begiratu orrialdearen orientazioa nola dagoen (bertikalean egon behar da).

Hori tintazko inprimagailu modelo batzuetan gerta daiteke.

Windows 98 edo berriagoren bat duten ekipoetan: *Hasi, Konfigurazioa, Inprimagailuak, Ezaugarriak, Papera.*

Azkarrago inprimatzeko hoberena inprimagailuaren esku-liburuan zenbat memoria duen begiratu eta **Kontrol panela, Inprimagailuak...** atalean jartzea da.

- Sortu PDF fitxategi bat.

PDF fitxategiak es du balio aurkezpen telematikoa egiteko.

BILATU AITORPENAK

Programak datu-basean dauden aitortpenak aurkitzeko aukera ematen du. Horretarako, hasierako menuan, Aitortpena aukeran Bilatu aukera ageri da. Bertan klikatu eta **Aitortpenak – Hautatu** pantailara sartzen gara, eta bertan pantailaratu nahi ditugun aitortpenen hauta ditzakegu.

Pantaila honetan honako eremu hauek ageri zaizkigu:

Antolamendua: Aitortpenak deituraren, IFZaren, errentaren aitortpenaren emaitzaren edo inprimaketa dataren arabera antola ditzakegu. Horretarako, goranzko gezia klikatu eta goranzko hurrenkeran antolatuko dira eta beheranzko gezia klikatu eta beheranzkoan. Bloke honetan nahi dugun aitortpen lerruna ere hauta dezakegu **Honetatik** edo **Honetaraino** eremuak betez. **Honetatik** eremuan ezer idazten ez bada, programak hasieratik antolatzen ditu; **Honetaraino** eremuan ezer idazten ez bada, azkeneraino antolatzen ditu.

Aukerak : Bloke honetan honako hauen arabera hauta ditzakegu aitorpenak:

- **Zero emaitza dutenak erakutsi**: Lauki hau markatu ezean, zero emaitza duten aitorpenak ez dira agertuko.
- **Zatikako ordainketa dutenak soilik erakutsi**: Lauki hau markatuz gero, zatikako ordainketa duten aitorpenak soilik agertuko dira.
- **Titularrak soilik erakutsi**: Hau markatzen bada, aitorpenen titularrak soilik agertuko dira, Filiazioa atalean aitortzaile gisa ageri direnak, alegia.
- **Taldekatu famili unitatearen arabera**: Hau hautatzen badugu, datuak aitortzailaren arabera antolatuta agertuko dira lehenengo, eta gero famili unitateko gainerako kideak. Aukera hau ez dago baliagarri datuak emaitzaren arabera antolatzen direnean.
- **Inprimaketa eguna**: Honen bidez egun jakin batean formatu ofizialean inprimatutako aitorpenak hauta ditzakegu. Ezer jartzen ez badugu, ez dago eraginik hautaketan.

Balioak berrezarri besterik ezean botoiak hasierako balioak ezartzen ditu pantailako eremuetan.

Datuak bete ondoren **Ados** sakatuz gero, ezarritako irizpideak betetzen dituzten aitorpenen zerrenda agertzen da; pantaila hau **Aitorpenen zerrenda** da. (Pantaila honetan aitorpenen zerrenda **Inprimatu edo Esportatu** daiteke, edo aitorpen bat **Ezabatu** edo **Ireki**).

Aitorpenen zerrendatik hautapen pantailara itzul gaitezke **Hautapena** botoia sakatuz.

TRESNAK

Segurtasun kopiak.

Honen bidez programak erabiltzen duen datu-basearen segurtasun kopiak egin daitezke; hala, inoiz datu-baseak ustekabeen huts eginez gero, datuak kopiatik berreskuratu ahal izango dira.

Tresna honetaz baliatzeko, ondokoak klikatu behar dira hasierako menu-barran: **Tresnak, Segurtasun kopiak**.

Honetaz aldian-aldian baliatzea komeni da, eta batez ere aitorpen berri asko grabatu direnean.

2015eko Errentaren datuak berreskuratu

2015eko ekitaldiko programaren bitartez egindako aitorpenen filiazio datuak berreskuratu nahi badituzu, erabili aukera hau. Jarraian agertuko den pantailan Errenta-2015 programa instalatuta dagoen direktorioa idatzi behar duzu, berreskuratu nahi dituzun datuak bertan baitaude.

2015eko ekitaldiko instalazio batzuetako datuak berreskuratu nahi izanez gero, instalazio beste aldiz egin behar duzu eragiketa hau.

Eragiketa burutzeko, klikatu hauek hasierako menu-barran: **Tresnak, 2015eko Errentaren datuak berreskuratu**.

NOLA INSTALATU SAREAN

Programa sarean funtzionatzeko prestatu dago; horrela, erabiltzaile batzuk datu eurez baliatu ahal

daitezke.

Sarean instalatzeko urrats hauek eman behar dira:

1. Sareko unitate batean denek erabili ahal izango dituzten datuak egongo diren karpeta sortu (esaterako Z:\DATOS). Karpeta hori programa honetarako soilik erabiltzea komeni da.
2. Programa erabiliko duten guztiek karpeta horretan sartzeko modua izan behar dute.
3. Gero, hauxe egin behar da lanpostu bakoitzean:
 - a. Programa berez ageri den tokian instalatu: C:\BFA\... (aldatu egin daiteke, baina onena berezko tokian instalatzea da).
 - b. Programa lehenengoz instalatzen denean, instalazioa nolakoa izango den zehazteko galdetzen du programak; bada, kasu honetan INSTALAZIOA SAREAN hautatu behar duzu eta gero 1. urratsean sortutako karpeta non dagoen adierazi.

AURKEZPEN TELEMATIKOAK

Interneten bidez aurkezten den fitxategia nola sortu:

Aitorpena egin ondoren, menuan sakatu **Inprimatu/Internet** eta aurkeztu nahi duzun errenta aitorpena aukeratu. Azkenean, aukera pantailan sakatu "Fitxategia sortu interneten bidez igortzeko" botoia.

Fitxategia C:\BFA\Renta\2016\Bizkaibai karpetan sortuko da. Programak **nnnnnnnn.mmm** izena ematen dio fitxategiari; **nnnnnnnn** aitortzailearen NAN zenbakia da eta **.mmm** (luzapena) aitorpenaren ereduaren kodea (**Errenta = .100; Ondarea = .714**).

Interneten bidez nola aurkeztu.

Errentako Web orrialdean: www.bizkaia.net/Errenta "Aurkezpenak Interneten bidez" atala ikusi.

FILIAZIOA. FILIAZIO DATUAK

Filiazioan zergadunari buruzko filiazio datu guztiak adierazi behar dira, eta beharrezkoa denean baita ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen eta errentaren aitorpenean eragina duten pertsona guztienak ere bai.

Eremu gehienak nahitaez bete behar dira, bestela programak ezin du lanik egin eta.

Datuak Foru Ogasunak emandako identifikazio-orrietan ageri direnak izan behar dira. Zerbait aldatu bada, *Aldaketak identifikazio datuetan* pantailan adierazi behar da. (aitorpena inprimatzen denean)

Izatezko bikoteak:

Agiri honetan Zergaren kargapeko subjektu pasiboaren ezkontza aipatzen denean, adierazitakoa Izatezko Bikoteei buruzko Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren araberrako eraturiko izatezko bikoteei ere badagokie, eta ondore eurekin. Halaber, ezkontidea aipatzen denean, adierazten dena izatezko bikotekideei ere badagokie, eta ezkontideen ezkontzako araubide ekonomikoaz

adierazten den guztia izatezko bikoteen ondarearen araubide ekonomikoari dagokio.

Izatezko bikoteak berariaz sortu den Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroan inskribatuko behar dira. Inskribatzeak berez dakar izatezko bikotearen eraketa; beraz, bertan inskribatuta ez dauden bikoteak ez dira izatezko bikotetzat hartuko. Izatezko bikotea erregistro horretan inskribatzeko nahikoa izango da kideetako bat administrazioari dagokionez Euskal Autonomia Erkidegoan auzotartuta egotea; ez da hartuko kontuan beste kidearen naziotasuna.

Izatezko bikoteetako kideek euren batasunaren ondoriozko harreman pertsonalak eta ondare-harremanak araupetu ahal izango dituzte agiri publiko zein pribatu batean; bertan bakoitzaren eskubideak eta betebeharrak adieraziko dira eta bikotea deseginez gero izango diren kalte-ordain ekonomikoak ezarriko dira.

Izatezko bikotearen eraketa edo izatea eta kideen arteko ondare-harremanen eduki juridikoa Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroaren ziurtagiriaren bidez frogatuko dira.

A1- Aitortzailea

IFZ. Aitortzailea

Eremu honetan aitortzailearen IFZ (identifikazio fiskaleko zenbakia) jarri behar da (nahitaezko eremua).

Formatoa: Aitortzailearen nazionalitatea Espainiakoa (Nortasun Agiri Nazionaleko zenbakia eta bertan ageri den letra) edo atzerrikoa den (X, Y, Z edo M + 7 digitu + haiekin batera ageri den letra) bereiztu behar da. Baldin eta aitortzaileak IFZrik ez badu (adingabekoa bada) Ogasunari eskatu behar zaio.

Eremu honen ezkerrean dagoen botoiaren bidez digituei dagokien letra zein den jakin daiteke. Botoia sakatuz gero, programak "IFZren letra" leihoa zabalduko du eta NAN zenbakia idatziz gero, *ados* sakatu eta programak letra agertuko digu. Gero, IFZren eremuan zenbakiak eta letra idatzi behar ditugu.

Aitortzailearen 1. deitura, 2. deitura eta izena

Eremu hauetan aitortzailearen izena eta deiturak jarri behar dira (nahitaezko eremua).

Sexua: Gizonezkoa bada "H" jarri behar da eta emakumezkoa bada "M". (nahitaez adierazi behar da)

Jaiotza eguna (uuuu/hh/ee)

Zergaduna jaio zen eguna adierazi behar da (nahitaezko eremua).

Heriotza eguna (uuuu/hh/ee)

Aitortzailea 2016. urtean hil bada, zein egunetan hil den adierazi behar da. Datu horrek eragina du "Famili kenkariak" atalean.

Desgaitasun mota

Zergaduna desgaitua bada, desgaitasun mota zehaztu behar da:

A: %33-64,99 bitarteko desgaitasuna, baremorik gabe

B: %33-64,99 bitarteko desgaitasuna, baremoarekin

Mugikortasunaren Baremoa:

1. Letrak A,B,C

2. 7 puntu edo gehiago ondorengo letretan: D, E, F, G ó H

C: %65eko desgaitasuna edo handiagoa. Mendetasun ertaina (I. gradua).

D: %75eko desgaitasuna edo handiagoa eta 15-39 puntu ATPn. Mendetasun larria (II. gradua).

E: %75eko desgaitasuna edo handiagoa eta 40 puntu edo gehiago ATPn. Mendetasun oso larria (III. gradua).

Frogagiria Gizarte Ekintza Sailak ematen du.

L.A. (s/n) (langile aktiboa bai/ez)

Langile aktiboa lanean ari dena da. Desgaitasunik jarri ez bada, eremu hau ez da baliagarri izango.

Eremu hau lanaren etekinen ziozko hobariari eta aitorten laburrari lotuta dago.

Egoera zibila

Lauki honetan aitortzailearen abenduaren 31ko egoera zibila jarri behar da. Modalitateak:

S: Ezkongabea

C: Ezkondua

V: Alarguna (*)

P: Izatezko bikoteko kidea (informazio gehiago: [izatezko bikoteak](#))

D: Dibortziatua

J: Banandu judiziala

(*) Urtearen zehar ezkontide edo izatezko bikotekide bat hil bada, filiazioan ezkondu gisa jarriko ditugu (egoera zibila: C) eta heriotza eguna adieraziko dugu. Banakako aitortenak inprimatzean ezkontide edo izatezko bikotekide alarguna alargun gisa jarriko da eta hildakoa ezkondu gisa. Aitorten batera aurkeztuz gero, aitortzailearen egoera zibila alarguna dela inprimatuko da. [Izatezko bikoteekin](#) antzera jokatu da.

Zergaduna ezkondua (C) edo izatezko bikotea (P) denean soilik adieraz daitezke beste ezkontidearen edo bikotekidearen datuak.

Familia ugaria:

Zergaldiaren hasieran (urtarrilaren 1a) familia ugariaren titular izanez gero, "S" (Bai) jarri behar da; bestela "N" (Ez). Titulartasuna frogatu behar da.

Familia bat **ugaritzat** jotzeko familiaburua, ezkontidea (egonez gero) eta hiru seme-alaba gutxienez izan behar dira unitatean, edo bi seme-alaba, batak desgaitasunaren bat badu edo lanerako desgaituta badago. (Famili Ugariatsuen Babesari buruzko azaroaren 18ko 40/2003 Legea eta ondorengo aldaketak).

Zerga esleipena (A/B/C/D)

Lau modalitate daude:

A: Eliza Katolikoarentzat

B: Gizarte xedeetarako

C: Eliza Katolikoarentzat eta gizarte xedeetarako

D: Esleipen gabe

2016ko ekitaldiko zerga esleipenaren xedea dela eta, zergadunek ondokoan artean hauta dezakete:

"Eliza Katolikoari lagundu" hautatuz gero, kuota osoaren portzentaje bat erakunde horren finantzaketarako izango da. (programan, "A" aukera)

"Gizarte onurako xedeetarako" hautatuz gero, kuota osoaren portzentaje bat gizartekintzako eta garapenari laguntzen dioten erakunde ez-gubernamentaltzat (EEG) izango da, gizarte programak egiteko. (programan, "B" aukera)

Biak hautatuz gero, kuota osoaren portzentaje bat Eliza Katolikoarentzat izango da eta beste horrenbeste gizarte onurako xedeetarako. (programan, "C" aukera)

Aurrekoak ez badira aukeratzen, dirua Estatuaren Aurrekontu orokorretako xede orokorretarako izango da. (programan, "D" aukera)

Gaur egungo helbidearen datuak

Egoitza, zk., letra eta solairua-aldea

Zergadunaren gaur egungo zerga egoitza adierazi behar da.

Bi eremu daude: lehenengoan helbidea idatzi behar da, labur-labur (CL, ...). Laburdurez balia daiteke. Bigarrenean egoitza deskribatuko da (nahitaezko eremua)

"Zk." laukian atetaren zenbakia jarri behar da; zenbakirik egon ezean ZG jarri behar da. (nahitaezko eremua)

"Letra"-n , atetaren letra jarriko da. Lauki honetan **ez da jarriko ateari edo aldeari dagokion letra.**

Udalerria

Zergaduna bizi den udalerria (nahitaezko eremua).

Posta kodea

Eremu hau nahitaez bete behar da. Udalerria Bizkaian badago eta posta kode BAKARRA badu, programak berez jarriko du.

Egoitza atzerrian duten zergadunek ezin dute eremu hau aukeratu.

Probintzia / Lurralde historikoa.

Eremu hau nahitaez bete behar da. Udalerria Bizkaian badago, programak Bizkaia jarriko du.

Egoitza atzerrian duten zergadunek "Atzerrian" adierazi beharko dute.

Herrialdea:

Egoitza atzerrian duten zergadunek bakarrik aukera dezakete eremu hau.

Telefono mugikorra:

Telefono mugikorra adieraziko da.

E-maila:

E-maila adieraziko da.

Bankuan helbideratu

Sarrera edo itzulketa bankuan helbideratu nahi izanez gero, kontuaren IBAN kodea jarri behar da.

Aitortzailea kontuaren titularra izan behar da (edo ezkontidea zergak elkarrekin ordainduz gero). Baldin eta emaitza 'sartu beharreko' zenbatekoa bada, helbideratze-kontua zerga-bilketa arloan kolaboratzen duen banku-erakunde batean irekitakoa izan behar da. (Erakundea kolaboratzailea bada, izena agertuko da Erakundea eremuan. Hala ez bada, zuri agertuko da.)

A2 - Ezkontidea edo izatezko bikotekidea

Atal hau aitortzailearen egoera zibila "ezkondua" (C) edo "izatezko bikotea" (P) bada **soilik** egongo da aktibo.

Aitortzaileari dagozkion eremuetan jarritako datuek ezkontidearentzat edo izatezko bikotekidearentzat ere balio dute.

Besterik adierazi ezean, programak aitortzailearen oraingo egoitza, zerga esleipena eta bankuan helbideratzeko datuak kopiatuko ditu.

Araubide ekonomikoa

Nahitaez adierazi behar da. **Modalitateak:**

F: Foru Komunikazioa

G: Irabazpidea (besterik adierazi ezean, berau)

S: Ondasun banantzea

O: Beste batzuk

FILIAZIOA. HARREMANKIDEEN DATUAK

Atal hau ezinbestekoa da, programak ez baitu onartuko filiaziorik gabeko famili kenkaririk.

Famili unitatean seme-alabarik egonez gero, adierazi egin behar dira, zeren baterako zerga-ordainketan famili unitatea ukitzen duten etekin eta kenkari guztiak pilatu behar baitira.

B1- Famili unitateko seme-alabak

Adingabeko seme-alabek etekinak edota kenkariak izanez gero, garrantzitsua da zein hurrenkeratan sartzen diren, kontuan izan beharko baita bakoitzari bere gakoa emateko (H1: lehen semea/alaba, H2: bigarren semea/alaba,...).

Atal honetan famili unitateko SEME-ALABA guztiak adierazi behar dira, kenkaria egiteko eskubidea ekarri zein ez. Bi mota daude:

a) Adingabekoak (2016-12-31en 17 urte edo gutxiago dituztenak)

b) Adinez nagusiak, baina epai bidez ezgaituak eta gurasoen ahalgoaren menpean jarriak (ahalgo luzatu zein birgaitua). (programan "Desgaitasun mota" adierazi behar da: C, D edo E)

Famili unitatekoa ez den seme edo alaba adingabeko eta kenkaridunik badago, "Kenkari eskubidedun beste pertsona batzuk" eremuan filiatuko da.

IFZ

14 urtetik beherakoena ez da jarri behar nahitaez (jarduera ekonomikoa egin ezean edo BGAEei, pentsio

planei edo mutualitateei kopuruak ekarri ezean). Zerga banaka ordainduz gero eta aitortpena aurkeztea hautatzen badu, bete egin behar da. IFZrik ez badu, Foru Ogasunari eskatu behar dio.

Eremu honen ezker aldean dagoen botoiaren bidez digituei dagokien letra zein den jakin daiteke.

Programak kontrolatu egingo du eremu honetan jartzen den IFZ ez dela ageri aitortpenean ez aitortzailearen ez ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen IFZ gisa, ez eta gordeta dauden gainerako aitortpenetan ere (famili unitateko kide direnez).

1. deitura, 2. deitura eta izena

Seme-alaben izena eta deiturak jarri behar dira (nahitaezko eremua).

Jaiotza eguna (uuuu/hh/ee)

Datu hau nahitaezkoa da. Tarte honetan egon behar da:

- a) Adingabekoa bada, 1999-01-01 eta 2016-12-31 artean
- b) Adinez nagusia bada, jaiotza eguna adierazi eta "Desgaitasun mota" eremuan C, D edo E gakoa jarri behar da (epai bidez ezgaitua).

Heriotza eguna (2016/hh/ee)

Hala gertatu bada beteko da. 2016ko eguna izan behar da.

Desgaitasun mota

Semea edo alaba desgaitua bada, desgaitasun mota adierazi behar da. Eremu honek ondokoekin du zerikusia:

- L.A. eremua (B/E)
- Lanaren etekinak (Hobaria)
- Txiki penak (desgaituentzako ekarpenak \geq %65)
- Famili kenkariak
- Aitorpen laburra

Epai bidez ezgaitutako seme edo alaba baten guraso-ahalgoa luzatu edo birgaitzen bada, lauki honetan C, D edo E gakoa jarri behar da.

L.A. (B/E) (langile aktiboa bai/ez)

Eremu hau desgaitasunaren %ari, lanaren etekinen ziozko hobariari eta aitorpen laburrari lotuta dago.

B2- Kenkari eskubidea ematen duten beste pertsona batzuk

Kenkaria badakarte soilik filiatu behar dira.

IFZ.

Nahitaez adierazi behar da 14 urtetik gorakoena.

Behealdeko botoi baten bidez N.A.N.eko letra zein den jakin daiteke.

1. deitura, 2. deitura eta izena

Kenkaria dakarten pertsonen izena eta deiturak jarri behar dira (nahitaezko eremua).

Ahaidetasuna

Nahitaezkoa. Modalitateak:

H: Semea/Alaba, Ondorengoa. (30 urtetik beherakoak edo desgaituaren ziozko kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen duten 30 urtetik gorakoak)

A: Aurrekoa (aita, ama, aitona, amona,...)

O: Beste batzuk (ilobak, tutoretzapeko pertsonak, hartuak)

F: Beste desgaitu kengarri batzuk. Gako honetan desgaitu kengarri guztiak sartuko dira aurreko gakoetan sartu barik badaude. (desgaitasun mota A,B,C,D edo E)

G: 30 urte edo gehiagoko seme-alabak urterokoen ordainketengatik kengarriak direnak

Jaiotza eguna (uuuu/hh/ee)

Datu hau nahitaezkoa da. Tarte honetan egon behar da:

a) Desgaitua ez bada, 1987-01-01 eta 2016-12-31 artean. 1986an jaiotakoak filiatu ahal dira, semea edo alaba 30 urte bete baino lehen, gurasoren baten edo seme/alaba beraren heriotza gertatzen bada.

b) Semea edo alaba desgaitua bada, jaiotza eguna adierazi behar da eta "Desgaitasun mota" eremuan gako hauetako bat jarri behar da: A, B, C, D edo E.

c) Seme-alaba kengarria baldin bada, bakarrik elikagaien urteko kuotak ordaintzearen ("G" gako), 30 urte edo gehiago izan beharko ditu. 1986an jaiotakoak ezin izango dira "G" gakoarekin filiatu. Hala, gurasoetako bat hiltzen bada edo seme-alaba bera 30 urte izan aurretik hiltzen bada, "H" gakoarekin filiatu beharko da.

Heriotza eguna (2016/hh/ee)

Hala gertatu bada beteko da. 2016ko eguna izan behar da.

Desgaitasun mota

Pertsona desgaitua bada, desgaitasun mota adierazi behar da. Eremu honek ondokoekin du zerikusia:

. Txikipenak (desgaituentzako ekarpenak)

. Famili kenkariak

FILIAZIOA. ORDEZKARIAREN DATUAK

Atal honetan zergadunaren legezko ordezkari gisa ari denaren datuak adierazi behar dira. Baldin eta zergaduna adingabekoa bada edo legezko gaitasunik ez badu, legezko ordezkaria gurasoetako bat izango da.

Derrigorrezkoa da ordezkariaren datuak jartzea, zergadun ezkongabearen, alargunaren, banandu judizialaren edo dibortziatuaren heriotza gertatzen bada.

IFZ

Pertsona fisikoa edo juridikoa izan daiteke.

IFZren letra eskura daiteke. (nahitaezko eremua)

Gurasoak eta seme edo alaba adingabeko bat filiatzen badira eta semeak/alabak banako aitortzea aurkeztea hautatzen badu, programak berez jarriko du legezko ordezkari aitortzaile ageri den aurrekoa.

Deiturak eta izena / Sozietatearen izena

Pertsona juridikoek sozietatearen izena adierazi behar dute (nahitaezko eremua).

Egoitza, zk., letra eta solairua-aldea

Ordezariaren zerga egoitza adierazi behar da.

Bi eremu daude: lehenengoan helbidea idatzi behar da, labur-labur (CL, ...). Laburdurez balia daiteke (2 karaktere). Bigarrenean egoitza deskribatuko da (nahitaezko eremua).

"Zk." laukian zenbakia jarri behar da; zenbakirik egon ezean ZG jarri behar da. (ez da nahitaezkoa)

Udalerria

Ordezaria bizi den udalerria adierazi behar da (nahitaezko eremua).

Posta kodea

Eremu hau nahitaez bete behar da.

Telefonoa:

Aukerakoa.

ETEKINEN ETA KENKARIEN LABURPEN PANTAILA

Leiho honetan ondokoen artean hauta daiteke:

- "Filiazioa" atalera joan
- "Etekinak" eta "Kenkariak" ataletara joan.
- Betetako ataletako zenbatekoak bistaratu, bai eta emaitzarik hoberena ere.

Atalak:

Lana: Hartzaile bakoitzeko etekin garbia bistaratuko da (positiboa zein negatiboa), eta, behar denean, baita baterako ordainketarako ere (CO).

Higigarrien kapitala: Hartzaile bakoitzeko etekin garbia bistaratuko da (positiboa zein negatiboa), eta, behar denean, baita baterako ordainketarako ere (CO). Oinarri Orokorrari eta Aurrezkiaren Oinarriari dagozkion etekinak metatuko dira. Beharrezkoa bada, dibidenduen salbuespena kontuan hartuko da.

Higiezinen kapitala: Hartzaile bakoitzeko etekin garbia bistaratuko da, eta, behar denean, baita baterako ordainketarako ere (CO). Oinarri Orokorrari eta Aurrezkiaren Oinarriari dagozkion etekinak metatuko dira.

Jarduera ekonomikoak: Hartzaile bakoitzeko aurreko ekitaldietako etekin negatiboak konpentsatu egin ondoren etekin garbia bistaratuko da eta, behar denean, baita baterako ordainketarako ere (CO). Atal honetan ez dira "Politika komunitarioko galerak" islatuko.

Irabaziak eta galerak: irabazi eta galeren saldo positiboen batukaria jarri behar da, aurreko urteetako galerak konpentsatu ondoren.

Txikipenak : Ondoko txikipenen batura bistaratuko da:

- Konpentsazio pentsioen eta mantenu-urtekoen zenbatekoa (seme-alabenak izan ezik).
- BGAE, PP, mutualitate, bermaturiko aurreikuspen planak eta menpekotasun asegurueta kopuruak

ekartzearen ziozkoak, legez txikipena egiteko eskubidea dagoenean.

- Baterako zerga-ordainketaren ziozkoak (aplikaturiko txikipena; CO zutabea)

Oinarriak eta konpentsazioak: Oinarri likidagarri orokorraren eta aurrezkiaren oinarri likidagarriaren saldo positiboan batukaria adieraziko da, aurreko urteetako oinarri likidagarri negatiboak konpentsaturik.

Kuota osoa: Guztirako kuota osoa adierazi behar da.

Famili kenkariak: Programak zergadun bakoitzak egin ditzakeen famili kenkari eta norberaren kenkarien guztirako zenbatekoa adieraziko du, edo baterako aitortpenean egin daitezkeen kenkariena.

Etxebizitzaren ziozko kenkariak:

Ondokoen zioz egin daitezkeen kenkarien batukaria bistaratuko da:

- Ohiko etxebizitzaren alogera. (errentaria)

- Ohiko etxebizitza erosi edo birgaitu.

- Etxebizitza kontura kopuruak ekarri.

Emarien ziozko kenkariak: Programak zergadun bakoitzak emarien zioz egin ditzakeen kenkarien guztirako zenbatekoa adieraziko du, edo baterako aitortpenean egin daitezkeen kenkariena.

Kuotengatik kenketa Sindikatuei / Ekarpinak Alderdi Politikoei: Sindikatuen kuoten ordainketaren ziozko kenkariaren eta alderdi politikoei zergadun izateagatik dagozkien egindako ekarpenen zenbatekoa bistaratuko da eta, dagokionean, zerga-ordainketa batera egiteko.

Denetariko kenkariak:

Programak ondoko kenkariak metatuko ditu:

- Jarduera ekonomikoan edot Zerga-gardentasunean egindako inbertsioak

- Bizitza Aseguruak.

- Beste kenkari batzuk.

Atal honetan ez dira bistaratuko "Mozkin galeraren ziozko gehikuntza" eremuko zenbatekoak. Hala ere, kontuan izango ditu azken emaitzarako.

Atxikipenak eta ordainketa zatikatuak: Programak zergadun bakoitzak egin ditzakeen atxikipenen eta ordainketa zatikatuen guztirako zenbatekoa adieraziko du, edo baterako aitortpenean egin daitezkeenena.

Emaitza: Hala denean, programak zerga ordaintzeko aukerarik hoberena zein den zehaztuko du, gorritz markatuz (banaka edo batera).

LANAREN ETEKINAK

SARRERA

Atal honetan famili unitateko kide guztiek lortutako etekin guztiak adierazi behar dira.

Aitortpena egiten duenak sartzen dituen balio guztiak izan behar dira zero edo gehiago. Kopurua 0 bada, laukian ez da ezer idatzi behar.

PANTAILA

Hartzailea

Lanaren etekinen hartzailearen gakoa jarri behar da (hartzailea filiaturik egon behar da).

D: Aitortzailea

C: Ezkontidea edo izatezko bikotekidea.

H1: Famili unitateko kide gisa filiatu den lehenengo semea/alaba.

H2: Famili unitateko kide gisa filiatu den bigarren semea/alaba, eta horrela hurrenez hurren.

Guztira/Batera zutabeen programak banako zutabeetako etekin guztiak konputatuko ditu, edo baterako ordainketakoak.

IFZ. Enpresa ordaintzailea

Etekinak ordaindu dituen erakundearen IFZ jarri behar da (nahitaezko eremua).

Aparteko kasuetan, etekinen frogagirian erakunde ordaintzailearen IFZ ageri ez bada, A00000000 jarriko da.

Diru-sarrerak

L anaren ondoriozko sarrera gordinen zenbateko osoa konputatuko da (sorrera urteak gorabehera).

Salbuetsitako etekinak eta kargapean ez daudenak ez dira konputatuko.

Etekinak irregularrak badira edo bi urte baino denbora luzeagoan sortu badira, eremu honetan %100 jarri behar da.

Atxikipenak

Lanaren etekinen zioz egindako atxikipenak jarri behar dira.

Enpresaren ekarpenak BGAEetara

Sustatzaileak edo bazkide babesleak zergadunarentzat gizarte aurreikuspeneko borondatezko erakunde batean (BGAE) sartu dituen kopuruak jarri behar dira.

Programak Txikipenak pantailako BGAEetarako ekarpenak atalera eramango ditu, zerga oinarri orokorra urritzeko.

Enpresaren ekarpenak PP eta mutualitateetara

Sustatzaileak zergadunentzat pentsio plan batean edo gizarte aurreikuspeneko mutualitate batean sartutako kopuruak jarri behar dira.

Programak Txikipenak pantailako BGAEetarako ekarpenak atalera eramango ditu kopuru horiek, zerga oinarri orokorra urritzeko.

Gastua. Gizarte Segurantzza.

Zergadunak Gizarte Segurantzari, nahitaezko mutualitateei eta zurtzen erakundeei egindako kotizazioak jarriko ditu.

Gauzako ordainsariak

Gauzako ordainsarien ziozko sarren kopurua, enpresek pentsio plan eta BGAEetarako egiten dituzten ekarpenak kenduta.

Langileari jasanarazi gabeko konturako sarrerak

Eremu honetan gauzazko ordainen zioz langileak jasan ez dituen konturako sarreraren zenbatekoa jarri behar da. Programak sarreraren guztirako kopuruari batuko dio berez.

Langileari jasanarazitako konturako sarrerak

Eremu honetan gauzazko ordainketen zioz langileak jasan dituen konturako sarreraren zenbatekoa jarri behar da.

Integratu gabeko kopurua

Irregularizat jotako etekinen edo bi urte baino aldi luzeagoan sortutakoen zioz integratu behar ez den zenbatekoa jarri behar da.

Gastua. Harreman bereziak

Lan-harreman bereziak (merkataritzako ordezkariak, ...) araupetu dituen araubidearen arabera ken daitezkeen kopuruak jarri behar dira.

Gastua. Alderdi politikoentzako ekarpenak

Alderdi politikoei derrigor ordaindutako kopuruak konputatuko dira.

Integratu beharreko etekinak

Programak sarrera guztien eta integratu gabeko kopuruaren arteko diferentzia zehaztuko du.

Gastuak, guztira

Ondoko eremuen batura: Gizarte Segurantza + Harreman bereziak + Alderdi politikoentzako ekarpenak. Kopuru hau programak kalkulatu du berez.

Aurreko etekin garbia

Kenketa hau egin behar: "Integratu beharreko etekinak" – "Gastuak, guztira".

Kopuru hau programak kalkulatu du berez. (negatiboa izan daiteke)

Hobaria

Programak zehaztuko du hobaria, honako puntuok kontuan hartuz:

- a) Diferentzia (aurreko etekin garbia) 7.500 euro edo gutxiago bada, 4.650 euroko hobaria aplikatuko da.
- b) Diferentzia (aurreko etekin garbia) 7.500 eta 15.000 euro artekoa bada, 4.650 euroko hobaria aplikatuko da, baina kopuru horri aipatu diferentziazatik 7.500 euro kentzearen ondoriozko kopurua eta 0,22 biderkatuz sortzen den kopurua kenduko zaio.
- c) Diferentzia (aurreko etekin garbia) 15.000 euro baino gehiago bada, 3.000 euroko hobaria aplikatuko da.
- d) Zerga oinarrian lanetik ez datozen errentak zenbatzen direnean, eta horiek 7.500 eurotik gorakoak ez badira, hobaria 3.000 eurokoa izango da.

Aurreko ataletan adierazten diren hobariei honako gehikuntza hauek aplikatuko zaizkie (filiazioaren TA eremuan "B" jarri behar da: BAI):

- a) %33-65 bitarteko desgaitasun maila eta mugikortasun baremoa duten langile aktibo desgaituentzat, %100(desgaitasun mota "A").

b) Aurreko idatzatian ez dauden desgaitu langile aktibo, %250,;

Desgaitasuna epai bidez adierazita duten desgaituei %65eko gradua edo handiagoa aplikatuko zaie, nahiz eta horretara heldu ez (PFEZen Foru Araua 11. xed. er.)

Famili unitateko bi kidek lanaren etekinak izan badituzte eta bakoitzak desgaitasun gradu bat badu, baterako ordainketan gradurik handiena hartuko da aintzat.

Hobaria aplikatzearen ondorioz ezin da gertatu lanaren etekina negatiboa izatea.

Zerga batera ordaintzen bada, hobari bakarra izango da eta aurretiko etekin garbien arabera kalkulatu da.

Hobaria bistaratzeko/eguneratzeko, leihotik irten eta berriro sartu behar da atal honetan.

HIGIGARRIEN KAPITALA. OINARRI AURREZKIA

Pantaila honetan hauexek konputatuko dira:

Sozietateen dibidenduak (DV)

Obligazio eta bonuen interesak (IO)

Kontu korrante, aurrezki libreta eta eperako ezarpenen interesak (IC)

Altxorraren letren etekinak (LT)

Aseguruaren etekinak (SO)

Finantza aktiboen eskualdaketek berariazk pantaila dute.

Hartzailea

Adieraziko da nor den ondare-elementuen, ondasunen edo eskubideen titularra: aitortzailea ("D"), ezkontidea edo izatezko bikotekidea ("C"), seme-alabetako bat ("H1", "H2"... "H5") edo aitortzailea-ezkontidea edo izatezko bikotekidea ("DC"); azken kasu honetan, programak zutabearen sartutako lerroan kopuru guztiak zati bi egingo ditu.

Higikorren kapitalaren etekinak berorien titular diren subjektu pasiboek eskuratutakotzat jotzen dira, ondorengoak kontuan harturik:

- berorien titulartasun juridikoari buruzko arauak
- ezkontzaren araubide ekonomikoaren xedapenak
- subjektu pasiboak edo administrazioak aurkezten dituzten frogak.

Mota

Higikorren kapitalari dagokion hartukizun mota. Titulu edo eskubide mota adierazten duen gakoa jarriko da.

DV: Dibidenduak, sozietateen mozkinetako partaidetza etab. (*)

IO: Obligazio eta bonuen interesak / Salbuetsirik ez dauden dibidenduak.

IC: Kontu korrante eta aurrezki kontuen interesak.

LT: Altxorraren letrak.

SO: Aseguruak eta kapitalizazio eragiketak.

()"IO" gakoia ondoko kasuetan aplikatuko da: inbertsio kolektiboko erakundeek banatutako dibidendu eta mozkin-partaidetzei eta etekinak ordaindu aurreko lehen bi hilabeteetan eskuratutako balore edo partaidetzetatik datozei, baldin eta data horren ondoren, baina epe berberaren barruan, balore homogeneoak eskualdatu badira. Baloreak edo partaidetzak ez badira negoziagarriak definituta dauden bigarren mailako balore merkatu ofizialetan -Europako Parlamentuak eta bertako Kontseiluak 2004ko apirilaren 21ean emandako 2004/39/EB Arteztarauan daude definituta, finantza tresnen merkatuari buruzkoan-, epea urtebetekoa izango da.*

Erakunde jaulkitzailea

Tituluak jaulki edo etekinak ordaindu dituen erakundea. Ez da adierazi behar nahitaez; informaziorako baizik ez da. Batez ere Ondarearen gaineko Zergarako balio du..

Sarrera osoak

Higigarri izaera duen etekinak jarriko dira.

Atxikipen eratxikigarriak

Hobaria dela eta ordaindu ez arren, zergadunari eratxiki ahal zaizkion atxikipenak. Balioaren gakoia "IO" denean soilik onartuko du programak.

Programak "Beste kenkari batzuk" atalera eramango du datu hau.

Atxikipenak / Kontura egindako sarrerak

Etekinak ordaindu edo atxiki dituzten erakundeen ziurtagirietan edo berriemateetan ageri diren atxikipenak eta kontura egindako sarrerak.

Jasangabeko Konturako Sarrerak

Mota honetako konturako sarrerak jarriko dira. Programak "Atxikipenak eta zatikako ordainketak" eremura eramango du kopurua.

Etekin garbia

Programak datu hau kalkulatu du.

Legezko ehunekoa baino atxikipen handiagoa

Eremu hau "IC" gakoarekin bakarrik dago aktibo. Lehenetsitako balioa "N" da. Atxikipenek legezko muga gainditzen badute, programak dagokion oharra emango digu errorea zuzendu dezagun. Atxikipenen zenbatekoa zuzena bada, "S" adierazi beharko dugu, programak, adierazitako atxikipenekin jarraitzea utz gaitzan.

Oharra: Aitxikipenek legezko muga gainditzen dute.

Penalizazioa eperako ezarpenaren ezeretze aurreratua eskatzeagatik. Etekin horiek jartzeko "S" markatu dezakegu "Legezko ehunekoa baino atxikipen handiagoa" eremuan, edo bi zutabe erabil ditzakegu. Lehenengo zutabearen hasieran sortutako korrituen eta atxikipenen zenbatekoak adieraziko dira. Bigarren zutabearen kitapen-komisiaren zenbatekoa (negatiboa) adieraziko da.

Adibidea:

Sarrera: 100 Egindako Atxikipena: 25

Legezko atxikipen portzentajea: %19

Lehengo zutabearen jarri behar da: Sarrerak: $25/\%19 = 131,58$ Atxikipena: 25

Bigarren zutabearen jarri behar da: Sarrerak $(100-131,58) = -31,58$ Atxikipena = 0

Dibidenduen salbuespena

Programak dibidenduen salbuespena zenbatuko du ("DV" gakoa). Aitorpeneko gehinez 1.500 euro.

Etekin garbia. Oinarri Aurrezkoa

Programak gako guztien etekinaren zenbatekoa kalkulatu du, "OT" (Beste etekin batzuk), "SU" (Ohiko bizitzaren azpierrementu), "OV" (Lotura dituen eragiketen etekinak) eta "O" (Lotura dituen aktiboen eskualdaketa) gakoak izan ezik.

Etekin garbia. Oinarri Orokorra

Programak "OT" (Beste etekin batzuk), "SU" (Ohiko bizitzaren azpierrementu), "OV" (Lotura dituen eragiketen etekinak) eta "O" (Lotura dituen aktiboen eskualdaketa) gakoekin ageri diren zutabeen arabera kalkulatu du etekinaren zenbatekoa.

HIGIGARRIEN KAPITALA. OINARRI OROKORRA

Pantaila honetan hauexek konputatu dira:

Lotura dituen eragiketen etekinak (OV)

Higigarri kapitalaren beste etekin batzuk (OT)

Ohiko etxebizitzaren azpierrementu (SU)

Finantza aktiboen eskualdaketek berariazko pantaila dute.

Hartzailea

Adieraziko da nor den ondare-elementuen, ondasunen edo eskubideen titularra: aitortzailea ("D"), ezkontidea edo izatezko bikotekidea ("C"), seme-alabetako bat ("H1", "H2"... "H5") edo aitortzailea-ezkontidea edo izatezko bikotekidea ("DC"); azken kasu honetan, programak zutabearen sartutako lerroan kopuru guztiak zati bi egingo ditu.

Higikorren kapitalaren etekinak berorien titular diren subjektu pasiboek eskuratutakotzat jotzen dira, ondorengoak kontuan harturik:

- berorien titulartasun juridikoari buruzko arauak
- ezkontzaren araubide ekonomikoaren xedapenak
- subjektu pasiboak edo administrazioak aurkezten dituzten frogak.

Mota

Higikorren kapitalari dagokion hartukizun mota. Titulu edo eskubide mota adierazten duen gakoa jarriko da.

OT: Beste gako batzuetan sartuta ez dauden beste etekin batzuk.

OV: Lotura dituen eragiketen etekinak

SU: Ohiko etxebizitzaren azpierrentamendu.

Erakunde jaulkitzailea

Tituluak jaulki edo etekinak ordaindu dituen erakundea. Ez da adierazi behar nahitaez; informaziorako baizik ez da. Batez ere Ondarearen gaineko Zergarako balio du..

Sarrera osoak

Higigarri izaera duen etekinak jarriko dira.

Gastu kengarriak

Ondasun higikorrak, negozioak, meatzeak eta laguntza teknikoa errentatuz sarrerak lortzeko egin behar izan diren gastuak agertarazi behar dira.

Hobaria

Programak kalkulatu du sarrera osoaren % 20, sarrera osoen eta gastu kengarrien arteko kenduraren arabera, "SU" gakoarekin soilik.

Aurreko etekin garbia

Programak diru-sarrera osoen eta gastu kengarrien edo hobariaren arteko aldea kalkulatu du.

Integratu gabeko kopurua

Bi urte baino denbora luzeagoan sortutako etekinen zioz edo integratu behar ez den zenbatekoa jarri behar da.

Atxikipen eratxikigarriak

Hobaria dela eta ordaindu ez arren, zergadunari eratxiki ahal zaizkion atxikipenak. Balioaren gako "IO" denean soilik onartuko du programak.

Programak "Beste kenkari batzuk" atalera eramango du datu hau.

Atxikipenak / Kontura egindako sarrerak

Etekinak ordaindu edo atxiki dituzten erakundeen ziurtagirietan edo berriemateetan ageri diren atxikipenak eta kontura egindako sarrerak.

Jasangabeko Konturako Sarrerak

Mota honetako konturako sarrerak jarriko dira. Programak "Atxikipenak eta zatikako ordainketak" eremura eramango du kopurua.

Etekin garbia

Programak "Aurreko etekin garbia" eta "Integratu gabeko kopurua" eremuetako kopuruen arteko diferentzia kalkulatu du.

Dibidenduen salbuespena

Programak dibidenduen salbuespena zenbatuko du ("DV" gako). Aitorpeneko gehienez 1.500 euro.

Etekin garbia. Oinarri Aurrezkia

Programak gako guztien etekinaren zenbatekoa kalkulatu du, "OT" (Beste etekin batzuk), "SU" (Ohiko bizitzaren azpierrentamendu), "OV" (Lotura dituen eragiketen etekinak) eta "O" (Lotura dituen aktiboen

eskualdaketa) gakoak izan ezik.

Etekin garbia. Oinarri Orokorra

Programak "OT" (Beste etekin batzuk), "SU" (Ohiko bizitzaren azpierrentamendu), "OV" (Lotura dituen eragiketen etekinak) eta "O" (Lotura dituen aktiboen eskualdaketa) gakoekin ageri diren zutabeen arabera kalkulatu du etekinaren zenbatekoa.

HIGIGARRIEN KAPITALA. FINANTZA AKTIBOEN ESKUALDAKETA

Ekitaldian egin diren finantza aktiboen eskualdaketak adieraziko dira.

4 dira:

- Atxikipena egin beharra dakarren aktibo eskualdaketa.
- Atxikipena egin beharra EZ dakarren aktibo eskualdaketa.
- Lotura dituen aktiboen eskualdaketa
- Lehentasunezko partaidetzak, MFE, MZ

Hartzailea

Adieraziko da nor den ondare-elementuen, ondasunen edo eskubideen titularra: aitortzailea ("D"), ezkontidea edo izatezko bikotekidea ("C"), seme-alabetako bat ("H1", "H2"..."H5") edo aitortzailea-ezkontidea edo izatezko bikotekidea ("DC"); azken kasu honetan, programak zutabeen sartutako lerroan kopuru guztiak zati bi egingo ditu.

Higikorren kapitalaren etekinak berorien titular diren subjektu pasiboek eskuratutakotzat jotzen dira, ondorengoak kontuan harturik:

- berorien titulartasun juridikoari buruzko arauak
- ezkontzaren araubide ekonomikoaren xedapenak
- subjektu pasiboak edo administrazioak aurkezten dituzten frogak.

Gakoak

4 dira:

- T: Atxikipena egin beharra dakarren aktibo eskualdaketa.
- S: Atxikipena egin beharra EZ dakarren aktibo eskualdaketa.
- O: Lotura dituen aktiboen eskualdaketa
- P: Lehentasunezko partaidetzak, MFE, MZ

Eskualdaketa-balioa

Finantza aktiboaren eskualdaketa zenbatekoari eskualdaketa datxezkion gastuak kenduz geratzen den kopurua.

Eskuraketa balioa

Finantza aktiboaren eskuraketaren zenbatekoari eskuraketari datxezkion gastuak kenduz geratzen den kopurua.

Etekina

Programak eskualdaketa-balioaren eta eskuraketa balioaren arteko diferentzia kalkulatu du.

Aurreko urteetako etekin negatiboen integrazioa (2 hilabete baino gutxiago):

1999. urtetik aurrera finantza aktiboen eskualdaketa ziozko etekin negatiboak integratu ezin izan badira eta ekitaldi honetan integratu behar badira, zenbatekoa atal honetan adieraziko da.

Etekin garbia

Programak berez kalkulatu du "Etekina" eta "Aurreko urteetako etekin negatiboen integrazioa" eremuen arteko diferentzia.

Atxikipenak

Benetan aplikaturiko atxikipenak konputatu dira. Eremu hau gakoa "T", "O" eta "P" denean soilik egongo da aktibo.

Etekin negatiboak (2 hilabete baino gutxiago):

Lauki honetan 2016. urtean sortu diren etekin negatibo konputaezinak adieraziko dira; etekinok hurrengo ekitaldietan integratu dira, balore homogeenak eskualdatu ahala.

HIGIEZINEN KAPITALA.

Eremu honetan higiezinak errentatuta eta eskubide errealak eratuta lortutako etekinak jaso behar dira.

PANTAILA

Hartzailea

Adieraz ezazu nor den ondare-elementuen, ondasunen edo eskubideen titularra: aitortzailea ("D"), ezkontidea edo izatezko bikotekidea ("C"), seme-alabetako bat ("H1", "H2"..."H5") edo aitortzailea eta ezkontidea edo izatezko bikotekidea ("DC"); azken kasu honetan, programak zutabearen sartutako lerroan kopuru guztiak zati bi egingo ditu.

Guztira/Batera zutabearen programak banako zutabeetako etekin guztiak konputatu ditu, edo baterako ordainketakoak.

Higiezinaren kapitalaren etekinak berorien titular diren subjektu pasiboek eskuratutakotzat jotzen dira, ondorengoak kontuan harturik:

- berorien titulartasun juridikoari buruzko arauak
- ezkontzaren araubide ekonomikoaren xedapenak
- subjektu pasiboak edo administrazioak aurkezten dituzten frogak.

Higiezin mota

Adieraziko da etxebizitza, lokal edo finkari eman zaion erabilera edo xedeari dagokion gakoa. Lauki honetan behean azaltzen diren gakoak ikusi ahal izango dituzu.

VA: Ohiko etxebizitzaren errentamendua (*)

IA: Errentan emandako beste higiezin batzuk.

OR: Bestelako etekinak.

() Atal honetan Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legeko 2. artikuluan etxebizitzaren errentamendutzat jotako eragiketek sortutako etekinak soilik sar daitezke.*

Helbidea / Errentaria

Atal hau ez da adierazi behar nahitaez; informaziorako baizik ez da.

Sarrera osoak

Jasotako etekinen zenbatekoa adierazi behar da.

Integratu gabeko kopurua

Bi urte baino denbora luzeagoan sortutako etekinen zioz edo integratu behar ez den zenbatekoa jarri behar da. "IA" eta "OR" gakoekin egongo da aktibo.

Lauki honetako zenbatekoa ezin da izan "Sarrera osoak" eremuan jarritakoa baino handiagoa.

Integratu beharreko etekinak

Programak "Sarrera osoak" eta "Integratu gabeko kopurua" arteko diferentzia kalkulatu du. Emaitzako kopurua ezin da izan negatiboa.

Hobariaren ehunekoa:

Lauki honetan aplikatu beharreko hobari ehunekoa zehaztu behar da.

"VA" motakoetan %20 da (berez); errentamendua 1985 baino lehenagokoa bada, %50.

"IA" motakoetan ezin da aplikatu hobaria (berez); errentamendua 1985 baino lehenagokoa bada, %40 edo 50.

Hobariaren zenbatekoa

Hobariaren zenbatekoa kalkulatzeko programak integratu beharreko etekina eta hobariaren ehunekoa biderkatuko ditu.

Inbertitutako interesak

Higiezin alokatuak eskuratu edo hobetzeko inbertituriko besteren kapitalen interesak jarriko dira

Beste gastu kengarri batzuk

Jar itzazu atal honetan higiezin errentatuei dagozkien sarrerak lortzeko egin behar diren gastuak, besteak beste: OHZren kuota, estolderia kuota, tasak, administrazio eta zaintza zerbitzuak, babes juridikoa, artapen eta konponketa gastuak, sute eta lapurreta aseguruaren sariak, hornidurak eta amortizazioa.

Hobaria eta Gastu kengarriak, guztira

Programak berez kalkulatu du ondoko eremuen batura: "hobaria" + "Inbertituko interesak" + "Beste gastu kengarribatzuk"

Etekin garbia

Programak berez kalkulatu du "Integratu beharreko etekinak" eremukoari "Gastu kenkorak, guztira" eremukoak kenduz.

Atxikipenak eta kontura egindako sarrerak

Errentatutako hiri higiezinaren zioz jasan diren atxikipenak eta kontura egindako sarrerak adierazi behar dira.

Legezko ehunekoa baino atxikipen handiagoa

Eremu hau "IA" eta "OR" gakoarekin bakarrik dago aktibo. Lehenetsitako balioa "N" da. Atxikipenek legezko muga gainditzen badute, programak dagokion oharra emango digu errorea zuzendu dezagun. Atxikipenen zenbatekoa zuzena bada, "S" adierazi beharko dugu, programak, adierazitako atxikipenekin jarraitzea utz gaitzan.

Etekin garbia. Oinarri Aurrezkia.

Ondasun eskualdatuen titulartasun juridikoari buruzko arauak direla bide; baldin eskualdaketa gai diren ondasunen titulartasuna irabazpidezkoa bada eta eskualdaketa hori "DC" zutabea jarri bada, ez dago zertan konputatu ezer atal honetan, ezen programak berez zatituko du aitortzailearen eta beraren ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen arteko balioak banako aukerarako. (besterik adierazi ezean, % 100)

Irabazia edo galera kargapean

Programak kalkulatu du.

Kargatutako irabazia edo galera = irabazia edo galera x [1 - ((Etxebizitza berrinbertsioa + ABE berrinbertsioa > 65 urte. Muga) / Eskualdaketa balioa) x (2016an jasotako zenbatekoa / Eskualdaketa balioa)]

Egotzitako irabazia edo galera

Programak kalkulatu du (irabazia edo galera kargapean x titulartasun %)

Metatutako irabazia/galera

Mugimendu asko dituzten ziurtagirietako irabazi edo galera metatuak jarriko dira.

Halaber, eremu honetan jarriko dira ondasunak edo eskubideak aurreko ekitaldietan eskualdatu eta zenbait urtetan zehar kobratzekoak diren ondare irabaziak edo galerak.

ADI! Datu honi lehentasuna emango zaio "egotzitako irabazia edo galera" eremukoaren aldean.

Inprimatzean gako berriak ezarriko dira:

AO barik "T" inprimatuko da.
AL barik "U" inprimatuko da.
IN barik "K" inprimatuko da.
GN barik "S" inprimatuko da.
DS barik "H" inprimatuko da.
PF barik "N" inprimatuko da.

Atxikipenak eta kontura egindako sarrerak

Kontura egindako sarrerak eta atxikipenak jarriko dira. Programak Atxikipenak eta Zatikako ordainketak eremuetara eramango du kopurua.

Jasangabeko Konturako Sarrerak

Mota honetako konturako sarrerak jarrito dira. Programak "Atxikipenak eta zatikako ordainketak" eremura eramango du kopurua ("PR" gakoarekin bakarrik aktibo).

Legezko ehunekoa baino atxikipen handiagoa

Eremu hau "PR" gakoarekin bakarrik dago aktibo. Lehenetsitako balioa "N" da. Atxikipenek legezko muga gainditzen badute, programak dagokion oharra emango digu errorea zuzendu dezagun. Atxikipenen zenbatekoa zuzena bada, "S" adierazi beharko dugu, programak, adierazitako atxikipenekin jarraitzea utz gaitzan.

Oinarri Aurrezkoa

Programak gako guztien irabazia/galera kalkulatu du, "PR" (sariak) eta "OT" (bestelako irabaziaz/galerak) gakoak izan ezik.

Oinarri Orokorra

Programak "PR" (sariak) eta "OT" (bestelako irabaziaz/galerak) gakoaren irabazia/galera kalkulatu du.

2/2014 Foru Arauaren aukera:

Programak hartzaile bakoitzaren "NF" gakoa duten zutabe guztien baturari dagokion zenbateko negatiboa adieraziko du.

Zerga berezia:

Programak PFEZen Foru Arauaren 24. xedapen gehigarrian jasotzen den aukeraz baliatu den hartzaile bakoitzaren zerga bereziaren zenbatekoa adieraziko du ("AO" gakoa duten zutabeak).

NEGOZIATZEKO ONARTUTAKO BALIOEN ONDARE IRABAZIETARAKO HAUTAZKO ZERGA ORDAINKETA ERREGIMENA.

PFEZen Foru Arauaren 24. xedapen gehigarriaren baldintzak betetzen dituen zergadunen bat badago bakarrik agertuko da pantaila hau.

Aukera hori banakako zerga-ordainketan nahiz baterako zerga-ordainketan erabil daiteke, eta desberdina izan daiteke zergadun berarentzat zerga-ordainketa aukera bakoitzean; baita baterako zerga-ordainketa aukeratu duen familia-unitateko zergadun bakoitzarentzat ere.

PANTAILA

Pantaila honetara sartzen zaren lehen aldiaren eremu aktibo guztietan lehenetsitako balioa "N" da (ez da aukerarik xedapen gehigarriaren aplikazioa aukeratzeko). Aukera hori aplikatzeko eskubiderik ez baduzu, eremua desgaituta egongo da.

Titularra: Programak titularra adieraziko digu: aitorlea ("D"), ezkontidea edo izatezko bikotekidea ("C") edo familia-unitateko seme-alabetako bat ("H1", "H2"... "H5").

Banako zerga-ordainketa: Eremua aktibo badago "S" balioa aukeratu beharko duzu, adierazitako hartzaileari banako zerga-ordainketa aplikatzeko.

Baterako zerga-ordainketa: Eremua aktibo badago "S" balioa aukeratu beharko duzu, adierazitako hartzaileari baterako zerga-ordainketa aplikatzeko.

ASEGURATUTAKO BIZIARTEKO ERRENTAREN BERRINBERTSIOA 65 URTETIK GORAKOENTZAT

Pantaila hau bakarrik agertuko da zergadunen batek ekitaldian zehar 65 urte baino nagusiagoentzat aseguratutako biziarteko errenta batean berrinbertsioagatik salbuespenari heldu baldin badio

Titularra: Programak titularra adieraziko digu: aitorlea ("D"), ezkontidea edo izatezko bikotekidea ("C") edo familia-unitateko seme-alabetako bat ("H1", "H2"... "H5").

Aurreko ekitaldietako berrinbertsioa: aurreko ekitaldietan egindako berrinbertsioaren zenbatekoa esleituko da (2017tik aurrera aktibatuta egongo den eremua)

Ekitaldiko berrinbertsioa: Programak zenbatekoa kalkulatu du.

Titular bakoitzarentzat aurreko ekitaldietan berrinbertitutakoaren eta ekitaldi honetan berrinbertitutakoaren batuketak ezingo du 240.000 euroko zenbatekoa gainditu (baterako aitopenean muga hori titular bakoitzari aplikatzen zaio).

Kasu bereziak:

Zerga gardentasunean egon den sozietate bat desegin eta haren ondare elementuak, 1994-12-31 baino lehen eskuratuak, eskualdatu badira eta ezin badira aplikatu koefiziente txikitzaileak, eskuraketa eguna 1997-01-01 izango da.

65 urtetik gorako pertsonak edo menpekotasun larria edo handia dutenek (Besteren Menpean dauden Pertsonen Autonomia Pertsonala eta Arreta Sustatzeko Legea) **ohiko etxebizitza eskualdatzeagatik salbuetsitako irabazia.** Programako eskualdaketa eguna eta eskuraketa eguna bera izango da (eskualdaketa benetan egin zen eguna), eta eskualdaketa-balioa eta eskuraketa-balioa ere bera izango da (eskualdaketa benetako balioa).

Eskurapena kostu gabekoa diren ondasun higiezinak eskualdaketen ondoriozko galera eta arautegiaen arabera ondare galera konputaezina izanik, programako eskualdaketa eguna eta eskuraketa eguna bera izango da (eskualdaketa benetan egin zen eguna), eta eskualdaketa-balioa eta eskuraketa-balioa ere bera izango da (eskualdaketa benetako balioa)

Kostu gabeko eskualdaketen ondoriozko galera eta arautegiaen arabera ondare galera konputaezina izanik, programako eskualdaketa eguna eta eskuraketa eguna bera izango da (eskualdaketa benetan egin zen eguna), eta eskualdaketa-balioa eta eskuraketa-balioa ere bera izango da (eskualdaketa benetako balioa) (adibidez dohaintzak higiezinak, akzioarenak, etab.)

Aurreko urteetan ondare elementuak eskualdatuta kopuruak zatika kobratuz izan den irabaziaren edo galeraren konputua . Kalkulua eskuz egin behar da eta emaitzako kopurua "Metaturiko irabazia/galera" laukian idatzi behar da. Eskuraketa eguna ondare elementua eskuratu den eguna izango da eta eskualdaketa eguna zatikako kobrantza gertatu den eguna.

Adibidea:

2014. urtean akzio batzuk saldu ziren 1.200 eurotan eta kobrantza 3 urtetan zatikatu da (2014, 2015 eta 2016): 400 euro urtean.

Datuak:

Eskuraketa-eguna	2004-06-06
Eskualdaketa-eguna	2014-07-07
Eskuraketa balio eguneratua	900
Eskualdaketa-balioa	1.200
Irabazia	300
2014n jasotakoa	400
2014ko irabazia	100

2016. urterako datu hauek sartu behar dira programan:

Eskuraketa eguna	2004-06-06
Eskualdaketa eguna	Jasotze eguna (2016)
Eskuraketa balioa	0
Eskualdaketa-balioa	400
Metatutako irabazia/galera	100

Ohiko etxebizitzaren berrinbertsioa eta eskualdatutako ohiko etxebizitzaren mailegua geratzen dena amortizatzeko. "Berrinbertsioa ohiko etxebizitza" laukian jarri behar da: (gehienez eskualdaketa-balioa)

Eskuraketa balioa (etxebizitza berria)

Eskualdaketa-balioa x

(Eskualdaketa-balioa – Maileguko amortizatzeko dagoen saldoa)

GALEREN KONPENTSAZIOA. AURREZPENAREN OINARRIA

Hartzailea

Programak famili unitateko kide guztiak zehaztuko ditu (D, C, H1, ...), edo baterako zerga-ordainketa, hala denean (CO).

Irabazia / galera

Programak irabazi edo galera (minus zeinua) garbia ezarriko du.

Ekitaldiko MFEen eta lehentasunezko partaidetzen konpentsazioa

Kompentsazioa gauzatzeko, leiho berezira jo behar da.

MFEen eta lehentasunezko partaidetzen etekin garbi negatiboa.

Programak kalkulatu du zenbatekoa. Menpeko finantza-ekarpenen eta lehentasunezko partaidetzen etekin garbi negatiboaren saldoa da, zergadunak ekitaldiko aurrezki -oinarriaren ondare irabaziekin konpentsatzea AUKERATU dezakeena.

Konpentsatutako zenbatekoa

Zergadunak banakako zein baterako zerga-ordainketaren bitartez konpentsatu nahi duen zenbatekoa adierazi beharko du. Balio posibleak, zero edo MFE/Lehentasunezko partaidetzen etekin garbi negatiboaren eta ekitaldiko ondare irabaziaren arteko zenbateko txikiena.

Etekinekin konpentsatutako MFE/Lehentasunezko p. galera

Menpeko finantza-ekarpenen/ lehentasunezko partaidetzen galeraren zenbatekoa adierazten du eremu honek, "Aurrezkiaren likidazio-oinarria. Konpentsazioak" pantailan ekitaldiko kapitalaren etekin positiboekin konpentsatu duguna.

Konpentsazioaren ondoko irabazia/galera

Programak kalkulatu du zenbatekoa. Irabaziari/galerari ekitaldiko MFE/Lehentasunezko p. konpentsazioaren zenbatekoa aplikatzearen emaitza da.

2012 - 2013 - 2014 - 2015eko galerak (Oinarri aurrezkoa)

Aurreko ekitaldietako galerak zehaztu behar dira 2016ko irabaziekin konpentsatzeko.

Galera (aurrezkoa) 2015 MFE eta lehen. partaidetzak

Aurreko ekitaldiko MFE/Lehentasunezko partaidetzak galerak esleituko dira 2016ko irabaziekin konpentsatzeko. Konpentsatu gabeko gehiegizkoa konpentsatzeko AUKERA egongo da ekitaldiaren aurrezko oinarriko etekin garbi positiboekin.

Aplikaturako konpentsazioa

Programak berez kalkulatu du aurreko urteetako galeren zioz aplikaturiko konpentsazioa. Zenbateko hori ezin izan daiteke irabazia baino gehiago. Ondare irabazirik egon ez bada, ez da konpentsaziorik egingo.

Konpentsazioaren ondoko irab./gal.

Programak irabaziaren eta aplikaturiko konpentsazioaren arteko diferentzia kalkulatu du. Galera gertatu bada, kopurua zeinu negatiboarekin bistaratu da eta hurrengo lau ekitaldietan konpentsatu da.

2016ko galera konputaezina

2016.urtean izan diren galeretatik legezko xedapenen zioz ezin konputa daitezkeenak jarriko dira. Kopuru hau informaziorako baizik ez da.

GALEREN KONPENTSAZIOA. OINARRI OROKORRA

Hartzailea

Programak famili unitateko kide guztiak zehaztu ditu (D, C, H1, ...), edo baterako zerga-ordainketa, hala denean (CO).

Irabazia / galera

Programak irabazi edo galera (minus zeinua) garbia ezarriko du.

2012 - 2013 - 2014 - 2015eko galerak (Oinarri orokorra)

Aurreko ekitaldietako galerak zehaztu dira 2016ko irabaziekin konpentsatzeko.

Aplikaturako konpentsazioa

Programak berez kalkulatu du aurreko urteetako galeren zioz aplikaturiko konpentsazioa. Zenbateko hori

ezin izan daiteke irabazia baino gehiago. Ondare irabazirik egon ez bada, ez da konpentsaziorik egingo.

Kompentsazioaren ondoko irab./gal.

Programak irabaziaren eta aplikaturiko konpentsazioaren arteko diferentzia kalkulatu du. Galera gertatu bada, kopurua zeinu negatiboarekin bistaratu da eta hurrengo lau ekitaldietan konpentsatu da.

Etekinekin 2012 - 2015eko galeren konpentsazioa

Programak etekinekin konpentsatu diren galeren zenbatekoa zehaztu du (oinarri orokorreko etekinen %10 gehienez).

Etekinekin ekitaldiko galeren konpentsazioa

Programak etekinekin konpentsatu diren ekitaldiko galeren zenbatekoa zehaztu du.

TXIKIPENAK

SARRERA

Oinarri likidator orokorra zerga oinarri orokorrari hurrengo txikipenak aplikatzearen ondorioko emaitza izango da:

- Konpentsazio pentsioak eta mantenturako urtekoak, kargapean ez daudenak izan ezik.
- Mutualitate, pentsio plan eta gizarte aurreikuspeneko borondatezko erakundeetarako ekarpenak.
- Baterako zerga-ordainketa.

A) GIZARTE AURREIKUSPENEKO SISTEMETARA EGINDAKO EKARPENAK ETA KONTRIBUZIOAK .

Ekartzailea

Programak aukera hauek emango ditu: D: Aitortzailea, C: ezkontidea edo izatezko bikotea, H1...H5: familia-unitateko seme-alabak

Desgaitasun mota

Kideren batek %33 - % 65 bitarteko desgaitasuna badauka (A edo B gakoa), eremu hau aktibatuko da desgaitasun mota hautatzeko (fisikoa edo psikikoa) PFEZen Foru Arauaren 72. artikuluan ezarritako araubidea aplikatzeko.

Erretiroaren egoeran (S/N)?

Zergadun bakoitza erretiro-egoeran dagoen ala ez adierazi beharko duzu. Lehenetsitako balioa "N" da

Erretiro-urtea

Aurreko galderari "S" balioarekin erantzun badiozu eremua aktibatuta egongo da. 2016. urtea edo hori baino lehenagoko urtea izan behar da.

Kobratu al duzu 70.6 art. prestazio kapitalizaturik (S/N)?

PFEZen Foru Arauaren 70.6. artikuluan jasotzen den prestazio kapitalizaturen bat kobratu baduzu adierazi beharko duzu zergadun bakoitzarekin. Lehenetsitako balioa "N" da.

Zerga-oinarriari erantsi behar zaion zenbatekoa

Aurreko galderari "S" balioarekin erantzun badiozu eremua aktibatuta egongo da. Zero baino handiagoa den

zenbatekoa izan behar da.

Ekartzailea

D: aitortzailea, C: ezkontidea edo izatezko bikotekidea, H1..H5: famili unitateko seme-alabak.

Gakoak

Ekarpena nolakoa izan den:

<i>Mota</i>	<i>Ekarpenak</i>
G	BGAEetara egindako ekarpen pertsonalak
K	BGAEetara egindako ekarpen pertsonalak (enpleguarena)
H	Pentsio plan, mutualitate edo bermaturiko aurreikuspen planetara edota enpresen gizarte aurreikuspeneko planetara egindako ekarpen pertsonalak
L	Pentsio plan, mutualitate edota enpresen gizarte aurreikuspeneko planetara egindako ekarpen pertsonalak (enpleguarena)
I	Sustatzaileak BGAEetara egindako ekarpenak (enpresa-lana)
J	Sustatzaileak pentsio plan eta mutualitateetara egindako ekarpenak (enpresa-lana)
O	Soberakinak 2013 arte. Ezkontide/izatezko bikotearen alde
P	Soberakinak 2014tik. Ezkontide edo izatezko bikotearen aldeko ekarpenak.
F	Ezkontidearen edo izatezko bikotearentzat
Y	Ekarpen txikitu gabeak 2013 arte (enpresa)
W	Ekarpen txikitu gabeak 2014 tik (enpresa)
X	Ekarpen txikitu gabeak 2013 arte (norberenak)
U	Ekarpen txikitu gabeak 2014tik (norberenak)
A	Desgaituarentzat (Ekarpenak / Aurreko urteetako soberakinak) (Ekartzailea ¹ IFZ. Partaide desgaitua)
M	Soberakinak 2013 arte. Hirugarrenei menpekotasun aseguruua.
N	Soberakinak 2014tik. Hirugarrenei menpekotasun aseguruua.
D	Menpekotasun aseguruak.
S	Kirolari mutualitateetarako ekarpenak

"I" eta "J" gakoak ez dira bistaratuko gakoien zerrendan. Programak lanaren etekinen ataletik ekarriko du datu hori.

Programak **aitortzaile bakoitzeko zutabe bat bakarrik** betetzen utziko du gakoa I, J, X, U, Y, W, M, N, O, P, S edo F bada.

"K" eta "L" gakoak bistaratuko dira zergadunak 70.6. artikulua prestazio kapitalizatua kobratu duen galderari "S" balioarekin erantzun badio.

Partaidearen IFZ

"A", "M", "N" edo "D" gakoa jarritz gero, partaidearen IFZ ezin da izan ekartzailearena (famili unitateko kide ez den desgaitu batena izan daiteke).

Partaide desgaitu batentzat 24.250 euro ekar daitezke gehienez.

"F", "P" edo "O" gakoa jarritz gero, partaidearen IFZ ekartzailaren ezkontidearena edo izatezko bikotekidearena izango da (berez).

Aseguratua desgaitua (S/N)

Eremu hori bakarrik "D" gako bat adierazi bada egongo da aktibatuta. Derrigorrezko eremua.

Aseguratua erretiroaren egoeran (S/N)

Eremu hori bakarrik "N" eta "D" gakoekin egongo da aktibatuta. Derrigorrezko eremua.

Erretiro-urtea

Eremu hori aktibatuta egongo da bakarrik "S" balioarekin erantzun duenenan aurreko galdera. 2016 edo aurreko urteren bat izan beharko da.

Enpresaren ekarpena

Programak berez jarriko du gakoa: "I" edo "J". Zenbatekoa lanaren etekinen ataletik hartuko da.

Norberaren ekarpena

Gizarte aurreikuspeneko borondatezko erakunde, pentsio plan, gizarte aurreikuspeneko mutualitate edo bermaturiko aurreikuspeneko plan batera edo enpresen gizarte aurreikuspeneko planetara ekarritako kopurua jarri behar da.

Ekarpen txikitua

a) Ekartzailea EZ bada desgaitua edo desgaitasuna %65ekoa baino txikiagoa bada (desgaitasun mota: A edo B fisikoa)

<i>Gakoa</i>	<i>Gehienez</i>
S (X + U + G + H) Norberaren ekarpenak	5.000€
S (Y + W + I + J) Enpresaren ekarpenak	8.000€
O + P + F (ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen ekarpenak)	2.400€

M + N + S D	5.000 €
S A (desgaitu batentzako ekarpenak)	8.000 €
S (Kirol mutualitateak)	Hauetatik txikiena: a) 24.250 b) Lanaren (Sarrerak – Gastuak) + Jarduera ekonomikoen etekin garbiak.

b) Ekartzailea desgaitua bada (Desgaitasuna %65etik gorakoa; desgaitasun mota: C, D edo E edo urritasun psikikoa %33koa edo handioaga)

<i>Gakoa</i>	<i>Gehienez</i>
S (X + U + G + H) Norberaren ekarpenak	24.250 €
S (Y + W + I + J) Enpresaren ekarpenak	8.000 €
O + P + F (ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen ekarpenak)	2.400€
M + N + S D	5.000€
S A (beste desgaitu batentzako ekarpenak)	8.000
S (Kirol mutualitateak)	Hauetatik txikiena: a) 24.250 b) Lanaren (Sarrerak – Gastuak) + Jarduera ekonomikoen etekin garbiak.

Baterako zerga-ordainketan aplikatu beharreko txikipena, baldin eta zerga oinarri orokorra nahikoa bada (konpentsazio pentsioen ziozko txikipena aplikatu ondoren), banako aitortpenetan aplikaturiko txikipenen batura izango da.

Zerga oinarria nahikoa ez bada, txikipena berriz kalkulatu da.

c) Ezkontide edo izatezko bikotekidearentzako ekarpenak (F)

Ezkontide edo bikotekide batek besteak egindako ekarpenen ziozko txikipena aplikatu dezake.

Programak begiztatuko du ea ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen zerga oinarri orokorra 8.000 € baino gutxiago den. Hala ez bada, ez ditu onartuko "F", "P" eta "O" gakoak. Txikipena 2.400 € izango da gehienez.

Gaindikina

Ekarpenen baturaren eta ekarpen txikituen baturaren arteko diferentzia. Gaindikinak hurrengo 5 ekitaldietan kendu ahal izango dira.

B) BATERAKO ZERGA-ORDAINKETA

Gehienez bi zenbateko hauetako bat izango da: **4.218** (senar-emazteak edo izatezko bikoteak, seme-alabekin zein batere gabe) edo **3.665** (famili unitatean guraso bat bakarrik -ezkongabea, banandua edo alarguna- eta adingabeko seme-alabak).

Programak gehienez ere aurreko bi zenbatekoetatik txikiena aplikatuko du: aurreko zenbatekoa edo zerga oinarri orokorraren eta konpentsazio pentsioen zioz ordaindutako kopuruen eta gizarte aurreikuspeneko sistemetara ekarpenen arteko diferentzia.

C) KONPENTSAZIO PENTSIOAK ETA MANTENURAKO URTEKOAK.

Ordaindutako konpentsazio pentsioen zenbatekoak oinarri orokorra murrizten du. Oinarria nahiko handia ez bada, diferentzia (gerakina) aurrezpenaren oinarriarekin konpentsatuko da.

Ordaintzailea

Kompentsazio pentsioak ordaindu dituen jarri behar da: "D" edo "C".

Hartzailearen izena

Kompentsazio pentsioen hartzailearen izena eta deiturak adierazi behar dira.

Hartzailearen IFZ

Hartzailearen IFZ (pertsone fisikoa) (8 digitu + letra)

Zenbatekoa

Kompentsazio pentsio edo mantenurako urtekoen zioz ordaindutako zenbatekoa konputatuko da (**seme-alabei ordaindutako urtekoak salbu**)

ERRENTEN EGOZKETA

Pantaila honetan EAB (enpresen aldi baterako batasunak) edo IEE (interes ekonomikodun elkarteak), nazioarteko zerga gardentasunaren araubidean dauden sozietateen eta zerga paradisuetan kokatutako talde inbertsioko erakundeetako kide diren pertsona fisikoei haien etekinen zioz egotzi beharreko oinarria zehaztu behar da.

Hartzailea

Errenten titularra nor den adierazi behar da ("D", "C", "H1", "H2", ..., "H5").

Guztira/Batera zutabeen programak banako zutabeetako etekin guztiak konputatuko ditu, edo baterako ordainketakoak.

Gakoa:

T: Zerga-oinarriak ABEEtan eta IETetan

I: Nazioarteko zerga gardentasuna

P: Talde inbertsioko erakundeak (zerga paradisuak)

Erakundearen IFZ

Oinarriak edo etekinak egozten dituen erakundearen IFZ adierazi behar da.

Egotzitako oinarria

Egotzitako oinarria zehaztu behar da. Egozketa talde inbertsioko erakunde batek egin badu, integratu beharreko etekina da.

Sozietateen gaineko Zergaren atxikpenak eta kuota

Egotzitako atxikpenak. Erakundeari Sozietateen gaineko Zergaren zioz aplikatzen zaizkion atxikpenak eta kuotak hartan partaide diren bazkideen PFEZen konturako atxikipentzat hartuko dira, eta egotzitako atxikpen gisa jarriko dira.

EBOT kalifikatutako ekarpenak (S/N) (*):

Derrigorrezko eremua. Adierazi "S" IET/ABEEra egindako ekarpenak kontabilitateko irizpideen arabera ezaugarri bereziko ondare-tresna bezala sailkatu baldin badira. "S" balioa aukeratuz gero, gainerako eremuak aktibatuko dira.

Ordaindutako ekarpena:

Derrigorrezkoa da eremua aktibatuta baldin badago.

Muga:

Programak "ordaindutako ekarpena" eremuan zehaztutako zenbatekoaren 1,2 kalkulatu du.

Aplikatutako zerga-oinarria:

Eremu aktiboa egotzitako oinarria zero baino baxuagoa baldin bada. Balioa egotzitako oinarriaren zenbateko negatiboaren eta zeroren artean egon beharko da. Eremua aktibatuta eta hutsik baldin badago, programak jakinarazpena bidaliko du egoera horren berri emanez.

Egotzitako kenkari-oinarria:

Kasu horretan, egotzitako kenkariaren oinarria adierazi beharko da.

Gehieneko kenkari-oinarria:

Aurreko eremuan zenbateko bat adierazi baldin bada, eremu hau aktibatuko da.

Balioa "Egotzitako kenkariaren oinarria" eremuan adierazitako zenbatekoaren eta zeroren artean egon beharko da. Eremua aktibatuta eta hutsik baldin badago, programak jakinarazpena bidaliko du egoera horren

berri emanez.

(* *Ikus SZFA 73.1.b art.*)

LIKIDAZIO-OINARRI OROKORRA. KONPENTSAZIOAK

2012tik konpentsatu gabeko likidazio-oinarri negatiboak badaude, leiho honetan sartu behar dira. Konpentsazioak aplikatzeko ezinbestekoa da 2016ko ekitaldiko likidazio-oinarri orokorra positiboa izatea.

Hartzailea:

Programak zehaztuko ditu hartzaileak (D, C, H1, etab.)

Etekinak eta errenta egozketak

Programak aurrezpenaren oinarrian sartu behar ez diren etekinak batuko ditu. (zeinua minus bada, jarri egin behar da)

Aurreko ekitaldietako galera konpentsatua

Programak "Ondare-irabaziak / Galera Konpentsazioak (oinarri orokorra)" pantailan adierazitako aurreko ekitaldietako galerengatik etekinei aplikatzen zaien konpentsazioa kalkulatu du. Etekinen %10eko muga.

Ekitaldiko galera konpentsatua

Aurreko ekitaldietako etekinak zero baino gehiago badira eta 2016an ondare galera garbia (oinarri orokorra) gertatu bada, programak ondare-galera adieraziko du ((etekinen %10eko muga) ken aurreko ekitaldietako galeraren konpentsazioa).

Etekinak konpentsazioa egin ondoren

Programak "Etekinak eta errenta egozketak" eremukoaren eta "Ekitaldiko galera garbia" eremukoaren arteko kenketa egingo du.

Zerga oinarri orokorra

Programak batuketa hau egingo du: "Etekinak eta egozketak konpentsazioaren ondoren" + "Irabaziak (oinarri orokorra)". Emaizta negatiboa izan daiteke (minus zeinua)

Likidazio-oinarri orokorra

Programak kalkulu honen bitartez zehaztuko du likidazio-oinarria:

$$\text{Likidazio-oinarri orokorra} = \text{Zerga oinarri orokorra} - \text{Txikipenak}$$

Zerga oinarria negatiboa bada, ezin da aplikatu txikipenik.

Aldiz, positiboa bada, txikipenak aplikatuko dira. Hurrenkera honetan aplikatuko dira:

1. Konpentsazio pentsioen ziozkoak
2. BGAEtara egindako ekarpenen ziozkoak
3. Baterako zerga-ordainketaren ziozkoak.

Txikipenen eraginez likidazio-oinarria ezin da negatibo bihurtu.

Zerga oinarria ez bada nahiko konpentsazio pentsioen ziozko txikipena aplikatzeko, gaindikina "Gerakina" laukian ezarriko da.

Likidazio-oinarri negatiboa (2012 - 2015)

Programaren erabiltzaileak konpentsa daitezkeen oinarri negatiboak zehaztu behar ditu.

Aplikatutako konpentsazioa

Programa kalkulatu du aplikatutako konpentsazioa. Hurrenkera kronologikoan aplikatu da. (gehienez likidazio-oinarri orokorra)

Likidazio-oinarri orokorra konpentsazioaren ondoren

Programak eragiketa hau egingo du: "Likidazio-oinarri orokorra" - "Aplikatutako konpentsazioa"

AURREZPENAREN LIKIDAZIO-OINARRIA. KONPENTSAZIOAK

Hartzailea:

Programak zehaztuko ditu hartzaileak (D, C, H1, etab.)

Etekin garbia:

Programak kapitalaren etekin garbien batura kalkulatu du (higigarriak eta higiezinak).

Ekitaldiko MFEen eta lehentasunezko partaidetzen konpentsazioa

Kompentsazioa gauzatzeko, leiho berezira jo behar da.

Ekitaldiko MFEen eta lehentasunezko partaidetzen galera

Programak kalkulatu du zenbatekoa. Menpeko finantza-ekarpenen eta lehentasunezko partaidetzen etekin garbi negatiboaren galeraren saldoa da, zergadun ekitaldiko aurrezki-oinarriaren etekin garbi positiboekin konpentsatzea AUKERATU dezakeena..

Kompentsatutako zenbatekoa

Zergadunak banakako zein baterako zerga-ordainketaren bitartez konpentsatu nahi duen zenbatekoa adierazi behar du. Balio posibleak, zero edo MFE/Lehentasunezko partaidetzen galeraren eta ekitaldiko etekin garbi positiboaren arteko zenbateko txikiena.

Irabaziekin konpentsatu den MFE/Lehentasunezko p. etekin garbi negatiboa

Ekitaldiko menpeko finantza-ekarpenen/lehentasunezko partaidetzen etekin garbi negatiboaren zenbatekoa adierazten du eremu honek, "Galeren konpentsazioa. Aurrezkiaren oinarria" pantailan ekitaldiko aurrezkiaren ondare irabaziekin konpentsatu duguna.

Kompentsatu ondoren etekin garbia

Programak kalkulatu du zenbatekoa. Etekin garbiari ekitaldiko MFE/Lehentasunezko p.kompentsazioaren zenbatekoa aplikatzearen emaitza da.

2012ko etekin negatiboa

Aurrezki oinarriko 2012ko etekin negatiboak zenbatuko dira.

2013ko etekin negatiboa

Aurrezki oinarriko 2013ko etekin negatiboak zenbatuko dira.

2014ko etekin negatiboa

Aurrezki oinarriko 2014ko etekin negatiboak zenbatuko dira.

2015eko etekin negatiboa

Aurrezki oinarriko 2015eko etekin negatiboak zenbatuko dira.

2015eko etekin negatiboa MFE eta lehen. partaidetzak

2015eko MFE/Lehentasunezko p. etekin negatiboak aurrezkiaren oinarritik konputatuko dira. Konpentsatu gabeko gehiegizkoa konpentsatzeko AUKERA egongo da, ekitaldiaren aurrezki oinarriaren ondare irabaziekin.

Kompentsatu ondoren etekin garbia

Programak 2016ko etekin garbi positibotik aurreko urteetako etekin negatiboa kenduko du. 2016ko etekin garbia negatiboa bada, hurrengo 4 ekitaldietan konpentsatu ahal izango da.

Aurrezpenaren zerga oinarria

Programak aurrezpenaren kapitalaren (higigarriak eta higiezina) etekin garbi POSITIBOen, konpentsatu ondoren, eta aurrezpenaren ondare irabazien batura kalkulatu du.

Gerakina

Programak konpentsazio pentsioen ziozko txikipenetatik zerga oinarri orokorra txikitzeko erabili ez diren zenbatekoa jarriko du hemen.

Aurrezpenaren likidazio-oinarria

Programak eragiketa hau egingo du: "Aurrezpenaren zerga oinarria" - "Gerakina"

Likidazio-oinarria, guztira

Programak aurrezpenaren likidazio-oinarri **positiboen** eta oinarri orokorrekoen batura kalkulatu du.

KUOTA OSOA

Pantaila honetan kuota osoaren kalkulua bistaratuko da. Batetik likidazio-oinarri orokorraren kuota osoa zehaztuko da eta bestetik aurrezpenaren likidazio-oinarri dagokiona.

Likidazio-oinarri orokorraren gaineko kargen eskala:

Likidazio-oinarria, gehienez	Kuota osoa	Likidazio-oinarriaren gaindikina, gehienez	Tasa (ehuneko)
0	0	15.550	23,00
15.550	3.576,50	15.550	28,00
31.100	7.930,50	15.550	35,00
46.650	13.373,00	19.990	40,00
66.640	21.369,00	25.670	45,00
92.310	32.920,50	30.760	46,00
123.070	47.070,10	56.390	47,00

179.460	73.573,40	hortik gora	49,00
---------	-----------	-------------	-------

Aurrezpenaren likidazio-oinarriaren eskala

Aurrezkiaren likidazio-oinarriaren zatia (euros)	Aplikatu beharrekoa tasa %.
2.500 eurora arte	20,00
2.500,01 eurotik 10.000,00 eurora	21,00
10.000,01 eurotik 15.000,00 eurora	22,00
15.000,01 eurotik 30.000,00 eurora	23,00
30.000,01 eurotik aurrera	25,00

Nazioarteko hitzarmenen aplikazioaren ondoriozko errentak (Oinarri orokorra/Aurrezki oinarria)

Lauki hauetan jarri behar dira salbuetsitako errentetatik zergei buruzko arauak (nazioarteko itunak) direla bide batez besteko tasa kalkulatzeko kontuan izan behar direnak.

Jarduera ekonomikoen irabazien ziozko txikipena

Jarduera ekonomikoek ondare irabaziak sortu badituzte jarduerari lotutako aktiboak besterenduz eta likidazio-oinarri orokorraren batez besteko tasa %24 baino handiagoa bada, programak hurrengo zenbatekoa kenduko du kuota osotik:

Txikipena = Ondare irabaziak x (Batez besteko tasa orokorra - %24)

Kuotaren murrizketa

Programak 1.389 euroko kuota-murrizketa aplikatuko du autolikidazio bakoitzean kuota oso orokorrean. Ezin da egon inola ere emaitza negatiborik.

Kotizazio-akzioen zerga berezia (%3)

Programak PFEZen Foru Arauaren 24. xedapen gehigarrian jasotzen den aukeraz baliatu den hartzaile bakoitzaren zerga bereziaren zenbatekoa adieraziko du.

KENKARI FAMILIAR ETA PERTSONALAK

SARRERA

Atal honetan ondoko kenkari hauek ageri dira:

- A- Ondorengoak
- B- Sei urtetik beherako ondorengoak
- C- Aurrekoak
- D- Desgaitasuna
- E- Seme-alaben mantenurako urtekoak
- F- Adinaren ziozko kenkaria
- G- Kenkari Orokorra

Kenkaria aplikatu ahal izateko, kenkariduna filiaturik egon behar da. Programak kenkaridunen kopurua

filiatutakoena baino handiago ez izatea kontrolatuko du.

Ondorengoetan eta mantenurako urtekoetan izan ezik, baterako zerga-ordainketaren zutabea (CO) aitortzailea (D) eta ezkontidea edo izatezko bikotekidea (C) zutabeetan jarritakoaren batura izango da.

HERIOTZA:

1. Kapitulu honetan ezarritako kenkariak aplikatzeko unean kontutan hartu behar diren norberaren eta familiaren egoeren zehaztapena, zergaren sortzapen egunean bizi den egoera kontuan hartuz egingo da.

Kenkari horiek konputatzeko, kalkulua inoiz ez da egingo kenkariak aplikatzeko exijitutako zirkunstantziak gertatu diren urte naturaleko egun kopuruaren proportzioan.

2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoa gorabehera, zergaldian kenkaria aplikatzeko eskubidea eman duen pertsona hil bada, kapitulu honetan ezarritako kenkariak aplikatzeko kontuan eduki beharreko inguruabar pertsonalak eta familiarrak hura hil denean izan den egoera aintzat hartuta zehaztuko dira, eta kenkaria ez da txikituko egun horren arabera proportzioan. .

2016	Jaiotza	Heriotza	Adina bete	Adina gainditu	Jaiotza - Heriotza
Ondorengoak	Ez da laintzen	30 urte bete baino lehen hiltzen bada KENKARIA %100, alderantziz, Kenkaria: 0		Desgaitasuna %33 baino txikiago bada, Kenkaria: 0	Ez da laintzen
6 urtetik beherako ondorengoak	Ez da laintzen	6 urte bete baino lehen hiltzen bada, Kenkaria: %100. Alderatziz, Kenkaria: 0		2010 jaiok, Kenkaria: 0 (heriotza ikusi)	Ez da laintzen
Janarirako urtekoak	Ez da laintzen	Ez da laintzen			Ez da laintzen
Aurrekoa		Ez da laintzen			
Desgaitua	Ez da laintzen	Ez da laintzen			Ez da laintzen
Adinaren ziozko kenkaria		Ez da laintzen	Ez da laintzen		

A- Ondorengo kenkaridunak

Zenbatekoak: **585** lehenengo ondorengoatik.

724 bigarren ondorengoatik

1.223 hirugarren ondorengoatik

1.445 laugarren ondorengoatik

1.888 bosgarrenatik eta gainerako bakoitzatik.

Kenkari hau 1986az gero jaiotakoei (hura barne) aplikatuko zaie. Desgaituak badira (desgaitasuna \geq %33), jaiotza-eguna ez da kontuan hartuko.

Kenkari aplikatzeko, ondorengoek ezin dute aurkeztu banako aitortpena, ez eta aurkeztu beharrik izan ere. Ondorengoaren errenta lanbidearteko gutxieneko soldata baino gutxiago izan behar da. (salbuetsiak kontuan izan barik)

Ondorengo kenkaridunen kopurua jarri behar da. Aurretik, ondorengo bakoitza Filiazioa atalean adierazi behar da.

Ezkontide bien seme-alabak soilik badaude:

a) Ezkontza: "CO" (baterakoa) laukia bete behar da; programak bien artean banatuko ditu jarritako ondorengoak.

b) Ezkongabea/Banandu judiziala/Dibortzatua/Alarguna: "CO" laukia beteko da (egonez gero) eta programak aitortzailearen laukian konputatuko du edo "D" zutabea beteko da.

Bi ezkontideen seme-alabak eta batenak bakarrik direnak egonez gero, ondorengoan leiho berezira joan behar da ("ondorengoak" alboko botoia sakatu behar da).

ONDORENGOEN LEIHO BEREZIA:

Leiho hau bi ezkontideenak eta batenak bakarrik diren ondorengo kenkaridunak daudenean zabaldu behar da. Programak nagusitik gazteenera antolatuko filiaturiko ondorengoak. Ondorengoan kopurua jarri behar da (bi dezimal erabil daitezke). Programak eremu bakoitzean zutabeak bat eginez 1,00 baino gehiago ez jartzea kontrolatuko du, eta "D" eta "C"ren batukaria 1,00 baino gehiago ez izatea ere bai.

Kenkaria, guztira : Programak zutabeka zehaztuko du kenkariaren zenbatekoa.

B- Sei urtetik beherako ondorengoak

Ondorengo bakoitzeko **335** euroko kenkaria aplikatuko da. 2010ean (heriotza ikusi), 2011n, 2012an, 2013an, 2014an, 2015ean eta 2016an jaiotakoei aplikatuko zaie.

Programak berez kalkulatu du kenkariaren zenbatekoa filiazioan jarritako datuez eta aurreko atalean ondorengo bakoitzari egotzitakoa oinarri hartuz.

C- Aurrekoengatikoen kenkaridunak

Aurreko kenkaridunen kopurua jarri behar da eremu egokian. Programak ez du uzten datu hau "CO" (Baterakoa) zutabea jartzen. Aurrekoa filiazioaren atalean adierazi behar da (ahaidetasuna: A).

Kenkariaren zenbatekoa **279** izango da aurreko bakoitzeko.

Kenkaria aplikatzeko, aurrekoek ezin dute aurkeztu banako aitortpena, ez eta aurkeztu beharrik izan ere. Aurrekoaren errenta lanbidearteko gutxieneko soldata baino gutxiago izan behar da. (salbuetsiak kontuan izan barik)

Aurreko bat baino gehiago badaude, botoi berezia azalduko da eta haren bidez aurreko kenkaridunen kopurua adierazi ahal izango dugu.

Ez da onartuko ezkontza bidezko aurrekorik (aitaginarreba/amaginarreba..).

Elkarbizitzarekin berdinetiko da egoitzei dirua ordaintzea aurrekoa urte osoan bertan bizi dadin.

D- Desgaituengatikoen kenkaridunak

Programak **EZ** du berez emango kenkari hau filiazioaren ataleko edo harremankideen datuen ataleko "Desgaitasun mota" eremuan portzentajea jarri bada. Aitorpengileak berak jarri beharko du. Programak ez du uzten datu hau "CO" (Baterakoa) zutabea jartzen.

Kenkariaren zenbatekoa hauxe da:

Desgaitasun mota	Kenkaria (euroak)
A, B = %33 edo handiagoa baina %65 baino txikiagoa	779

C = %65etik gorakoa. Mendetasun ertaina (I. gradua).	1.113
D = %75etik gorakoa eta 15 - 39 puntu besteren laguntzaren baremoan. Mendetasun larria (II. gradua).	1.334
E = %75etik gorakoa eta 40puntutik gora besteren laguntzaren baremoan. Mendetasun oso larria (III. gradua).	1.666

E- Mantenurako urtekoak

Ordaindutako janarirako urtekoen zenbatekoa jarri behar da, eta urtekoen hartzaileen kopurua ere bai. Programak ez du uzten datu hau "CO" (Baterakoa) zutabeaz jartzen. Hartzailea Filiazioa atalean adierazi behar da.

Kenkarien gehieneko zenbatekoak ondokoak izango dira:

- **175,50** lehenengo semeagatik/alabagatik.
- **217,20** bigarrenagatik.
- **366,90** hirugarrenagatik.
- **433,50** laugarrenagatik.
- **566,40** bosgarrenagatik eta gainerako bakoitzagatik.

Programak berez zehaztuko du hurrengo kopuruetatik txikiena:

- a) ordaindutako urtekoen %**15**
- b) Aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoak

Seme-alaba bat baino gehiago egonez gero, botoi berezia aktibatuko da eta beraren bidez atal honetako seme-alaba kenkaridunen kopurua adierazi ahal izango da.

F- Adinaren ziozko kenkaria

Programak berak kalkulatu du kenkariaren zenbatekoa filiazioan adierazitako datuez baliatuz.

Banako zerga-ordainketa:

Zerga oinarria 20.000 eurokoa edo hortik beherakoa duten zergadunek eta 65 urtetik gorako adinarekin **334** euroko kenkaria aplikatuko dute, 75 urtetik gorako adinarekin **612** euroko kenkaria aplikatuko dute.

65 urtetik gorako zergadunen kasuan, haien zerga-oinarria 20.000 eurotik gorakoa baina 30.000 eurotik beherakoa bada, kenkari hau aplikatuko dute: 334 euroko kenkariari kendu egin beharko diote zerga-oinarriari ken 20.000 euro eginez lortzen dena bider 0,0334 eginez lortzen den emaitza.

75 urtetik gorako zergadunen kasuan, haien zerga-oinarria 20.000 eurotik gorakoa baina 30.000 eurotik beherakoa bada, kenkari hau aplikatuko dute: 612 euroko kenkariari kendu egin beharko diote zerga-oinarriari ken 20.000 euro eginez lortzen dena bider 0,0612 eginez lortzen den emaitza.

Baterako zerga-ordainketa:

Zerga oinarria 35.000 eurokoa edo hortik beherakoa duten zergadunek eta 65 urtetik gorako adinarekin **334** euroko kenkaria aplikatuko dute, 75 urtetik gorako adinarekin **612** euroko kenkaria aplikatuko dute.

OHIKO ETXEBIZITZAREN ALOGERA

PANTAILA

Titularra

Ordainketa egiten duen familia unitateko kidea jarri behar da. Aitortzailea eta ezkontidea badira "DC" jarriko da.

Alogeraren zenbatekoa

Ohiko etxebizitzaren alogeragatik ordaindutako zenbatekoa adieraziko da.

Alogeraren ziozko kenkaria

Programak %20 aplikatuko du (muga 1.600 euro) edo %25 (muga 2.000 euro) (familia ugaria osatzen badu edo 30 urte baino gutxiago baditu)

Zergadunaren adina edo noiz duen familia ugariaren titulartasuna agertzeko zergaren sortzapen data hartuko da. (abenduaren 31 edo heriotza data)

Nahitaez adierazi behar dira hurrengo datuok:

- Titularra: Ordainketa egiten duen familia unitatearen kidea jarri behar da. Biak izanez gero, aitortzailea eta ezkontidea, "DC" adieraziko da.

- Errentatzailearen IFZ: Pertsona fisikoa (8 digitu + letra) edo juridikoa (letra + 8 digitu) izan daiteke.

- Izena: Errentatzailearen izena eta deiturak adierazi behar dira, edo sozietatearen izena. (44 karaktere)

- Zenbatekoa: Errentatzaileari dagokion zenbatekoa adierazi behar da.

ETXEBIZITZA KONTUA

PANTAILA

Titularra

Atal honetan etxebizitza kontuetan ezarpenak egiten dituztenak adieraziko ditugu (D: Aitortzailea, C: Ezkontidea, H1...H5: famili unitateko seme-alabak, DC: Aitortzailea-Ezkontidea).

Guztira/Batera zutabeen programak banako zutabeetako kenkari guztiak konputatuko ditu, edo baterako ordainketakoak.

Irekiera data

Etxebizitza kontuaren irekiera data adieraziko da (formatua uuuu/hh/ee). Urtea 2011 edo handiagoa izan behar da eta 2016 edo txikiagoa.

2016ko inbertsioa

2016. urtean etxebizitza kontuko saldoan gertatu den gehikuntza adieraziko da.

OHIKO ETXEBIZITZAREN INBERTSIOA

PANTAILA

Pantaila honetan sei zutabe egon daitezke gehienez.

Etxebizitzaren zenbakia (finkoa)

Ohiko etxebizitzari emandako zenbaki finkoa jarri behar da (7 digitu eta letra). Zenbaki hori OHZren (Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga) ordainagirian azaltzen da (*kontribuzioa*).

Etxebizitza Bizkaitik kanpo badago, hauxe jarri behar da: 1234567E (zubi zenbakia).

Etxebizitzak katastro baliorik ez badu (eraiki berria), ondoko zenbaki finkoa jarriko da: 1000001U.

Ohiko etxebizitzaren sustatzailearen konturako ordainketa finantzatzeko bada, ondokoa jarriko da: 1000000U.

Eremu hau nahitaez bete behar da.

Eskuratzaila

Ohiko etxebizitzaren eskuratzailak zehaztu behar dira. Aitorpenean eragina duten gakoak baizik ez dira adieraziko: D, C, H1... Etxebizitza bi ezkontideek erosi badute, DC jarri behar da.

Eskuraketa-eguna

Ohiko etxebizitza eskuratu den eguna adierazi behar da (uuuu/hh/ee). 2016. urtekoa edo aurrekoa izan behar da.

Etxebizitza birgaitu bada edo eraikitzaileari konturako ordainketak egin bazaizkio, birgaikuntzaren edo konturako ordainketaren eguna jarriko da, kasuan kasukoa.

Birfinantzaketa (RF) gertatu bada, finantzatzen den etxebizitza eskuratu den eguna jarriko da.

Gakoa

Hauetako bat:

P: Mailegua

RF: Birfinantzaketa (2016.urtean mailegua eskatu aurreko beste bat birfinantzatzeko)

AD: Ohiko etxebizitza eskuratzea.

RE: Ohiko etxebizitza birgaitzea.

PA: Sustatzaileari/eraikitzaileari kontura ordaindutakoa.

OT: Beste batzuk. (*)

(*) Gako honetan sartuko dira, besteak beste, eskuraketa gastuez gaineko gastuak, ohiko etxebizitza aurreko urteetan eskuratu bada, bai eta etxebizitza elbarrientzat atontzeko obren gastuak ere.

Eskuraketa balioa

Eskuraketa balioa konputatuko da, zerga arautegiaren arabera. Gakoa P (mailegua) edo RF (birfinantzaketa) bada, ez da aktibatuko.

Birgaikuntza egin bada, haren zenbatekoa jarriko da.

Konturako ordainketei dagokienez, 2016. urteetan sustatzaileari edo eraikitzaileari ordaindutakoa adierazi

behar da.

2016an eskudirutan ordaindutako zenbatekoa

Eskuratzailerak eskudirutan ordaindutako zenbatekoa, kendu nahi dena, jarri behar da. Programak datu hau erabiliko du maileguaren kenkari ehunekoa kalkulatzeko.

Gakoa P (mailegua) edo RF (birfinantzaketa) bada, ez da aktibatuko.

Maileguaren identifikazio zenbakia

Mailegua banku batean hartu bada, frogagiriko erreferentzia zenbakia idatzi behar da; enpresa batena bada, haren IFZ; norbanakoen artekoa bada, mailegu-emailearen IFZ.

Emate eguna:

Mailegua noiz eman den zehaztu behar da. Besteren finantzaketa egon bada, eremu hau nahitaez bete behar da.

Maileguaren balio izendatua

Eskatutako maileguaren zenbatekoa jarri behar da.

Saldoa 2016-01-01ean / birfinantzaketaren saldoa

Ondokoak adierazi behar dira:

Gakoa P bada (mailegua), maileguaren saldoa epealdiaren hasieran.

Gakoa RF bada (birfinantzaketa), birfinantzaketa egin aurretik hasierako mailegutik geratzen zen saldo kengarria.

Gainerako gakoekin programak maileguaren balio izendatua hartuko du.

Maileguaren kenkariaren ehunekoa

Maileguaren kenkariaren ehunekoa adierazi behar da (berez %100). Lauki gakoa P denean (mailegua) soilik aktibatzen da; gainerako gakoekin programak egingo du kalkulua.

Maileguaren amortizazioa

Lauki honetan 2016. urtean inbertitutako kopuruak jarriko dira, hain zuzen ere eskuratzailerak ken ditzakeenak (maileguaren ehunekoa onartzen bada, Programak laindu egingo du).

Maileguaren interesak

Lauki honetan 2016. urtean ordaindutako maileguaren interesak jarri behar dira, eskuratzailerak ken ditzakeenak (ehunekoa onartzen bada, Programak laindu egingo du).

Saldoa 2016-12-31n / azken saldoa

Hemen kenketa honen emaitza jarri behar da: Saldoa 2016-01-01ean / birfinantzaketaren saldoa – Maileguaren amortizazioa.

Oharra:

Programak legezko ehunekoak aplikatuko ditu eta legezko mugak kontuan hartuz kalkulatu du kenkaria.

	Ehunekoak	Muga (*)
Orokorra	%18	1.530 €
<ul style="list-style-type: none"> • 30 urtetik beherakoak • Familia ugaritsua 	%23	1.955 €

(*) Famili unitateak baterako zerga-ordainketa hautatzen badu (PFEZen Foru Arauaren 98.1. artikulokoak), muga taulakoa halako bi izango da.

ETXEBIZITZA: LABURPENA

Titularra

Programak zehaztuko ditu famili unitateko kideak (D, C, H1...H5, eta CO).

Inbertsioa

Honen zenbatekoa kalkulatzeko programak eskurazaile bakoitzeko ohiko etxebizitzan egindako inbertsioaren pantailan ezarritako datuak erabiliko ditu.

Interesak

Hauen zenbatekoa kalkulatzeko programak eskurazaile bakoitzeko ohiko etxebizitzan egindako inbertsioaren pantailan ezarritako datuak erabiliko ditu.

Kenkariaren ehunekoa

Programak eskurazailearen inguruabar pertsonalei dagokienez kenkari ehunekoa zehaztuko du: % 18 edo %23.

Etxebizitzaren ziozko kenkaria

Programak eragiketa hau egingo du: (Inbertsioa + Interesak) x Kenkariaren ehunekoa

Kreditu fiskala

Kopuru finkoa da: 36.000 euro eskurazaileko.

2016/12/31 arte erabilitako kreditu fiskala

1999az geroztik etxebizitza dela eta aplikatutako kenkariei berrinbertsioen zioz salbuetsitako irabazien % 15 edo % 18 gehitzearen emaitzako zenbatekoa jarri behar da.

Kreditu fiskalaren saldoa 2016/01/01ean

Programak kalkulu hau egingo du: zergadunaren hasierako zerga kreditutik 2016/12/31 arte erabilitako kreditu fiskala kendu.

Berrinbertsioaren zioz salbuetsitako irabazia x % 18

Irabazien eta galeren pantailan ohiko etxebizitzaren eskualdaketaren ondoriozko berrinbertsioen bat jarri bada, programak % 18ko tasa aplikatuko dio salbuetsitako irabaziaren zenbatekoari.

Etxebizitzaren ziozko kenkaria

Programak eskurazaile bakoitzari dagokion etxebizitzaren ziozko kenkaria kalkulatu du, bidezko zerga

mugak eta erabili gabeko kreditu fiskala (saldoa 2016/01/01ean – berrinbertsioaren zioz salbuetsitako irabaziaren x % 18) kontuan hartuta. Programak ez du kreditu fiskala erabiliko beharrezkoa ez denean (kuota osoa ken beste kenkariak etxebizitzaren ziozko kenkaria baino txikiago izanik).

Aplikatu beharreko azken kenkaria izango da.

Etxebizitza-kontuaren ziozko kenkaria (% 18)

Programak etxebizitza-kontuaren ziozko kenkariaren zenbatekoa kalkulatu du inbertsioaren kopurua (etxebizitza-kontuaren ziozko kenkariaren pantailan ageri dena) oinarriztat hartu eta % 18ko tasa (finkoa) aplikatuta, bidezko zerga mugak eta erabili gabeko kreditu fiskala (saldoa 2016/01/01ean – berrinbertsioaren zioz salbuetsitako irabaziaren x % 18) kontuan hartuta.

Erabilitako kreditu fiskala

Programak eragiketa hau egingo du hau kalkulatzeko: berrinbertsioaren zioz salbuetsitako irabaziari (% 18) etxebizitzaren ziozko kenkaria eta etxebizitza-kontuaren ziozko kenkaria gehitu.

Erabili gabeko kreditu fiskala

Programak kalkulu hau egingo du: kreditu fiskalaren 2016/01/01eko saldoari 2016an erabilitako kreditu fiskala kendu. Eraitza positiboa edo 0 izan behar da.

EMARIAK

PANTAILA

Dohaintza-emailea

Kenkariaren titularra adieraziko da: (D, C, DC, H1, H2...)

Guztira/Batera zutabeen programak banako zutabeetako kenkari guztiak konputatuko ditu, edo baterako ordainketakoak.

Mota

Hauetako bat:

20 = Dohaintzak % 20ra (orokorra)

30 = Dohaintzak % 30era (lehentasunezko jarduerak)

18 = Dohaintzak % 18ra (lehentasunezko jarduerak)

Emariaren zenbatekoa

Ekarrirako zenbatekoa.

Aplikaturako zenbatekoa

Programak oinarri likidagarriaren % 30eko muga aplikatuko du. Aplikatzeko ordena lehenik % 30ekoak, gero % 20koak eta gero % 18koak izango da.

Kenkaria

Programak aplikaturiko zenbatekoaren gainean kalkulatu du, tasaren arabera.

SINDIKATUAK / ALDERDI POLITIKOAK

PANTAILA

Titularra

Programak kenkariaren titularra adieraziko du: (D, C, H1, H2...)

Guztira/Batera zutabeen programak banako zutabeetako kenkari guztiak konputatuko ditu, edo baterako ordainketakoak.

Sindikatuaren kuota

Ordaindutako kuota zehaztu behar da.

Kenkaria

Programak: sindikatuaren kuotaren %20 aplikatuko du.

Alderdi politikoaren kuota

Afiliazio kuota eta alderdiei egindako ekarpenak jarri behar dira. Ekarpenak, lan etekinetan gastu kengarritzat ezin direnak onartu hemen jarriko dira.

Kenkaria

Programak: alderdi politikoaren kuotaren edota ekarpenen %20 aplikatuko du.

INBERTSIOA JARDUERA EKONOMIKOETAN / ZERGA-OINARRIAK ABEETAN ETA IETETAN

Atal honetan jarduera ekonomikoetan (zuzeneko zenbatespena, arrunta zein erraztua)/ABEE eta IET egindako inbertsioak jaso behar dira.

Titularra:

Kenkaria aplikatzeko eskubidearen titularra adierazi behar da: aitortzailea "D", ezkontidea "C", famili unitateko seme-alabak (H1, H2 ... Ez da onartzen "DC").

Entitatea:

“E- Berezia” jarriko da ABEE/IETera egindako ekarpenak kontabilitateko irizpideen arabera ezaugarri bereziko ondare-tresna bezala sailkatu baldin badira. Gainerako kasuetan “G- Orokorra” ezarriko da.

Programak kontrolatuko du “2016 inbertsioa” eremuan “Erakundea” gakoa “E” duen titular berarentzat jarritako zenbatekoen batuketak bat egiten duela titular horrentzat “Errentaren Egozpenak” leihoko “Gehienezko kenkariaren oinarria” eremuan jarritako zenbatekoarekin. Bat etortzen ez bada, programak jakinarazpena bidaliko du egoera horren berri emanez.

Urtea: (uuuu)

Inbertsioa zein urtetan egin zen zehaztu behar da. (2016 edo aurrekoa izan behar da)

Gakoa:

Eremu hau bakarrik oraingo ekitaldirako aktibatuta egongo da. Hauetako bat jarri behar da:

G: Inbertsioengatik eta beste jarduera batzuentatik

P: Ekoizpen zinematografikoaren eta ikus-entzunezkoen inbertsioengatik

2016ko inbertsioa

Lauki hau urtea 2016 izanez gero soilik aktibatuko da. 2016an inbertitutako kopurua.

Ehunekoa (%)

Inbertsioari aplikatu beharreko ehunekoa jarri behar da. Urtea 2016 izanez gero soilik aktibatuko da. Hamartarrik gabe adierazi behar da. 0-100 bitartekoa izan behar da.

2016ko ekitaldiko kenkaria

Programak berez kalkulatu du. (2016ko inbertsioa x ehunekoa).

Aurreko urteetako kenkaria

Aurreko ekitaldietako kenkarietatik aplikatu gabe dagoen kopurua zehaztu behar da. Urtea 2016 baino lehenagokoa izanez gero aktibatuko da.

Kuotaren muga (%)

Jarduera ekonomikoari dagokion kuota osoaren muga adierazi behar da (ehunekoa). (berez, 45 izan behar da). (≤ 100).

Aplikaturako kenkaria:

Programak aplikaturako kenkaria kalkulatu du mugak kontuan hartuta.

Aplikatu gabeko kenkaria

Programak 2016ko edo aurreko urteetako kenkariaren eta aplikaturakoaren arteko diferentzia kalkulatu du.

BESTE KENKARI BATZUK ETA ZERGA ONUREN GALERAREN ZIOZKO GEHIKUNTZAK**Titularra**

Programak kenkariaren titularra adieraziko du: (D, C, H1, H2...)

Guztira/Batera zutabeen programak banako zutabeetako kenkari guztiak konputatu ditu, edo baterako ordainketakoak.

Atxikipen eratzikigarriak

Programak zergadunari edo famili unitateko beste kideren bati ustez eratziki behar zitzaizkien eta hala ere egin ez zaizkien atxikipenak agertuko ditu. Programak berak jasoko ditu, baldin eta higigarrien kapitalaren etekinei buruzko atalean sartuta badauzkazu (IO gakoa), eta horregatik hemen ezin duzu aldakuntzarik sartu.

Desgaituen ondarrerako ekarpena

Ekarpenaren zenbatekoa sartu behar da.

Kenkariaren zenbatekoa

Ekarpenaren %30. Gehienez 3.000. Baterako zerga-ordainketan 3.000.

Langileek enpresan duten partaidetza

Langileak lanean ari den enpresaren akzioak edo partaidetza eskuratzeko ordaindutako zenbatekoa.

Orokorra

Kenkariaren zenbatekoa

Ekarpenaren %10. Gehienez 1.200. Baterako zerga-ordainketan 1.200.

Berezia

Kenkariaren zenbatekoa

Ekarpenaren %10. Gehienez 6.000. Baterako zerga-ordainketan 6.000.

Enpresa sortu berrietan egindako inbertsioa

Leiho berezira jo beharra dago programak kenkaria kalkulatu dezan.

Ekitaldiaren inbertsioa

Ekitaldian sortu berriak diren edo duela gutxi sortu diren enpresetan akzioak edo partaidetzak eskuratzeko ordaindutako zenbatekoa adierazi beharko da.

Ekitaldiaren kenkaria

Ekarpenaren %20.

Aurreko urteetako kenkaria

Aurreko ekitaldietatik aplikatzeko dagoen kenkariaren zenbatekoa adierazi beharko da.

Aplikatu den kenkaria

Hauen arteko zenbateko txikiena:

Ekitaldiko kenkariaren eta aurreko urteetako kenkariaren arteko batura

10.000 euro

Zergadunari dagokion likidazio-oinarriaren %10.

Baterako zerga-ordainketan, ondorengo arteko zenbateko txikiena:

Ekitaldiko kenkariaren eta aurreko urteetako kenkariaren arteko batura

10.000 euro

Zergadunari dagokion baterako likidazio-oinarriaren %10.

Egin gabeko kenketa

Ekitaldiko kenkariaren eta aurreko urteetako kenkariaren baturaren eta aplikatutako kenkariaren zenbatekoaren arteko aldea.

Nazioarteko zergapetze bikoitza

Atzerrian ordaindutako zergak eta bertan lortutako errenta adieraziko dira, titularreko banakaturik eta kontuan izanez likidazio-oinarrian, oinarri orokorrean edo aurrezpenaren oinarrian dauden, eta programak kenkaria kalkulatu du.

Hurrengo bi kopuruetatik txikiena kendu ahal izango da:

a) Ondare irabazi edo etekinen zioz atzerrian ordaindutako zerga

b) Atzerrian lortutako **errentari** batez besteko karga-tasa aplikatuz sortzen den kopurua (orokorra edo aurrezpenarena, errenta integratu den likidazio-oinarriaren zatiaren arabera: orokorra edo aurrezpenarena).

Onuren galeraren ziozko gehikuntza

Onuren galeraren ziozko gehikuntza adieraziko da, titularreko banakaturik. Etxebizitza-kontuaren, ohiko etxebizitzaren eskuraketaren eta enpresa edo lanbide jardueretan egindako inbertsioen ziozko kenkariak aplikatzeko eskubidea galtzen bada, zergadunak kenkariaren kopuruak eta haien berandutza-interesak gehitu behar dizkio betekizunak bete ez diren ekitaldian sortutako zerga kuotari.

Erabiltzaileak adierazitako kontzeptu bakoitzaren etekinen galeragatik izandako hazkunderaren zenbatekoa sartu beharko du leiho berezian, eta berandutza korrituen eremuan, kenkari guzatiatarako pilatutako berandutza korrituetarako kalkulatu duen eta itzultzen ari den zenbatekoa sartu beharko du.

AITORPEN LABURTUA

Hona aitorten laburra aurkez dezaketena:

- Lanaren etekinak **20.000** euro edo gutxiagokoak dituzten zergadunak (sarrerarik ez duenak ezin du aurkeztu aitorten laburra, lan-gastuak izanik ere)

- Kapitalaren etekinak eta ondare irabaziak bat eginda **1.600 (*)** euro edo gutxiago jasotzen dituzten zergadunak.

Aldiz, ondoko hauek ezin dute aurkeztu aitorten laburra:

- Lanaren etekin integratu beharrekoak 20.000 eurotik gorakoak dituztenek.

- Kapitalaren etekinak eta ondare irabaziak bat eginda 1.600 euro baino gehiago jasotzen dituztenek.

- Jarduera ekonomikoa egiten dutenek.

- Zerga gardentasunean egotzitako oinarriak dituztenek.

- Batasunaren politikaren zioz galerak izan dituztenek.

- Mozkin galeren zioz gehikuntza izan dutenek.

- Ondaren galerengatik edo likidazio-oinarri negatiboengatik konpentsazioak zainpetzen dituztenek

(*) Talde-inbertsioko erakundeen akzioen edo partaidetzen eskualdaketek edo itzulketek sortzen dituzten ondare irabaziak lortzen dituzten zergadunek aitortena aurkeztu beharko dute, horien zenbatekoa edozein delarik ere, baldin eta PFEZaren araudiko 96. artikuluko 2. zenbakian ezarritakoaren arabera atxikipen-oinarria ez bada zehaztu behar zerga-oinarriari integratu beharreko zenbatekoa aintzat hartuta.

PANTAILA

Hartzailea

Ez dago baterako zerga-ordainketarik.

Lanaren etekinak 20.000 euro edo gutxiagokoak izan dituzten hartzaileak baizik ez dira bistaratuko, aurreko

baldintza guztiak betetzen dituztenak.

Sarrerak, guztira

Programak hartzaile bakoitzeko integratu beharreko lanaren sarreraren guztirako kopurua kalkulatu du.

Etekinak, portzentajea kalkulatzeko

Programak atxikipen-portzentajea kalkulatzeko, hartzaile bakoitzeko integratu beharreko lanaren etekinen zenbatekoa kalkulatu du.

Langilearen gakoa

Gako hauetako bat jarritz gero, programak aitortzen laburra egin dezakeela jakingo du:

G: Langilea, oro har.

P: Pentsioduna

M: Langile aktibo desgaitua

Atxikipenen taulan aplikatu beharreko portzentajea

Programak ondokoaren arabera hautatu du aplikatu beharreko portzentajea:

- a) Integratu beharreko etekin guztiak. (enpresek BGAEetara ekarritako kopuruak eta pentsio planetara eta gizarte aurreikuspeneko mutualitateetara ekarritako kopuruak izan ezik)
- b) Aurreko zenbatekoari ordaindutako konpentsazio pentsioak kenduko zaizkio.
- c) Kontuan izango dira **famili kenkarietan** jarritako **ondorengo kenkaridunak**.
- d) Pentsiodunei (P) dagokienez, ondorengo bateko taula orokorra aplikatu da.
- e) Desgaituei (M) dagokienez, taula bereziak aplikatu dira jarritako desgaitasun motaren arabera.

Kalkulatutako atxikipenak

Programak aurreko portzentajea eta integratu beharreko etekinak biderkatuz kalkulatu ditu atxikipenak.

Egindako atxikipenak

Programak lanaren atalean ageri diren atxikipenen eta kontura egindako sarreraren (jasanaraziak eta jasanarazi gabeak) batura hartu du (hartzaileko).

Diferentzia

Aurreko bi lerroetan jarritako kopuruaren arteko diferentzia berez kalkulatu da.

Diferentzia = Kalkulatutako atxikipenak - Egindako atxikipenak.

Kopuru hori zero edo gehiago izan behar da (negatiboa bada, zero konputatu da)

Emaitzako kopurua "Emaitza" atalera eramango da. Pantaila honetan programak aukerarik onena zein den adieraziko du (aitortzen arrunta edo laburra).

ATXIKIPENAK ETA ZATIKAKO ORDAINKETAK

Pantaila honetan beste atal batzuetan adierazi diren atxikipen eta kontura egindako sarrera guztiak banakatuko dira.

Ondoren leihoan arteko harremanak azalduko dira:

Atxikipenak eta kontura egindako sarrerak	Hemendik dator
Lana	Lana
Higikorren kapitala	Higikorren kapitala
Higiezinaren kapitala	Higiezinaren kapitala (errentatutako higiezinak)
Lanbide jarduerak	Jarduera ekonomikoak
Enpresa jarduerak	Jarduera ekonomikoak
Sariak	Irabaziak eta galerak (Gainerako irabaziak eta galerak)
Inbertsio fondoak	Irabaziak eta galerak (Inbertsio-fondoak)
Zerga-oinarriak ABEEtan eta IETetan	Errenten egozketak
Zatikako ordainketak	Jarduera ekonomikoak

AITORPENAREN EMAITZA

Leiho hau aitorten osagarria aurkezten denean (Filiazioan "osagarria" jarri behar da) edo aitortena epez kanpo aurkezten denean erabili behar da.

Hartzailea (D, C, H1, H2,.. CO -baterakoa)

Zerga zorra: arrunta

Programak zergadunak ordaindu beharreko aitorten arrunteko zerga zorra adieraziko du, edo hari itzuli beharreko kopurua (negatiboa).

Zerga zorra: laburra

Behar denean, programak zergadunak ordaindu beharreko aitorten laburreko zerga zorra adieraziko du, edo zero jarriko. Aitorten laburreko zerga zorrik ez badago, ez da zenbatekorik agertuko.

Hautatutako zerga zorra (N/A) (Arrunta/Laburra)

Programak emaitzarik hoberena duena hautatuko du berez. Emaitza bera bada bietara, aitorten arrunta hautatuko du.

Zerga zorra, guztira

Programak hautatutako zerga zorra jarritako ditu.

Itzulitakoa, guztira

Atal hau aitorten osagarria egitean bete behar da, aurreko likidazioan zerbait itzuli bada. Itzulitakoa behin-behineko likidazio baten ondoriozkoa bada, zenbatekoa adieraziko da, eta bestela aurkeztutako autolikidazioan (aitorpena) itzultzeko eskatutako kopurua

Sartutakoa, guztira

Atal hau aitorten osagarria egitean bete behar da, aurreko autolikidazioan zerbait ordaindu bada. Ordaindutakoa behin-behineko likidazio baten ondoriozkoa bada, zerga zorraren % 100 jarriko da, eta bestela aurkeztutako autolikidazioaren (aitorpena) ondorioz sartu beharreko zerga zorraren % 100.

X emaitza zero bada

Aitorten osagarria egiten ari bazara eta aurreko behin-behineko autolikidazioaren / likidazioaren emaitza zero izan bada, atal hau bete behar duzu.

Itzuli beharrekoa, guztira

Programak berez kalkulatu du itzuli beharreko zenbatekoa.

Eragiketa ondokoa izango da:

Zerga zorra, guztira + Itzulitakoa, guztira edo – Sartutakoa, guztira

Sartu beharrekoa, guztira

Programak berez kalkulatu du sartu beharreko zenbatekoa.

Eragiketa ondokoa izango da:

Zerga zorra, guztira + Itzulitakoa, guztira edo – Sartutakoa, guztira

HIGIEZINEN ERRENTAMENDUA (Errentatzailearen datuak)

Ekonomi jardueri loturiko higiezin errentamenduetan, errentatzailearen identifikazio-datuak idatzi behar dira ekonomi jardueraren etekinak konputatu diren atalean. (ekonomi jarduerak \ zenbatespena xxxxx \ beste datu batzuk)

Ohiko etxebizitzaren alogeraren ziozko kenkaria aplikatzen bada (maizterra), errentamenduaren datuak "Ohiko etxebizitzaren alogeraren ziozko kenkaria" pantailan adierazi behar dira.

Aurrekoak ez beste balizko batzuetan higiezinaren errentamenduagatik dirua ordaintzen bada, errentatzailearen datuak pantaila honetan adierazi behar dira.

Titularra

Higiezinaren errentamendua ordaintzen duen titularraren gako jarri behar da (D: Aitortzailea; C: Ezkontidea edo izatezko bikotekidea; H1...H5: Famili unitateko seme-alabak; DC: Aitortzailea – Ezkontidea edo izatezko bikotekidea).

Errentatzailearen IFZ

Higiezinaren errentatzailearen IFZ jarri behar da.

Errentatzailearen deiturak eta izena edo sozietatearen izena

Higiezinaren errentatzailea pertsona fisikoa bada, beraren deiturak eta izena adierazi behar dira. Aldiz, pertsona juridikoa bada (sozietateak, etab.), sozietatearen izena edo izendazioa jarri behar da.

Zenbatekoa

Higiezinaren alogeragatik ordaindutako zenbatekoa adierazi behar da.

HIGIEZINEN ERRENTAMENDUA (Errentariaren datuak)

Higiezinaren kapitalaren atxikipenak zenbatu badira, nahitaezkoa izango da errentariaren datuak betetzea.

Titularra

Higiezinaren errentamendua jasotzen duen titularraren gakoa jarri behar da (D: Aitortzailea; C: Ezkontidea edo izatezko bikotekidea; H1...H5: Famili unitateko seme-alabak; DC: Aitortzailea – Ezkontidea edo izatezko bikotekidea).

Errentariaren IFZ

Higiezinaren errentariaren IFZ jarri behar da.

Errentariaren deiturak eta izena edo sozietatearen izena

Higiezinaren errentaria pertsona fisikoa bada, beraren deiturak eta izena adierazi behar dira. Aldiz, pertsona juridikoa bada (sozietateak, etab.), sozietatearen izena edo izendazioa jarri behar da.

Zenbatekoa

Higiezinaren alogeragatik jasan den zenbatekoa adierazi behar da.

Atxikipena

Errentatutako hiri higiezinaren zioz jasan diren atxikipenak adierazi behar dira.

Hurrengo urteetan aplikatu beharreko kopuruak

Lehio honetan, hurrengo ekitaldeetan konpentsatzeko geratzen diren kopuruak ikusten dira. Zutabeetan ordainkerak agertzen dira: Banakakoak (D,C,H) eta baterako ordainkera (CO).

Kompentsagarriak diren kopuruen laburpena inprimatu ahal da.

Kontuz, datorren urtean, programaren erabiltzaileak, ekitaldi honetan zein ordainkera aukeratu zuen gogoratu egin behar du.

Banakako ordainkera aukeratu bazuen, D edota C edota H zutabean jartzen diren kopuruak bakarrik konpentsatu ahal izango ditu. Baina, baterako ordainketa aukeratu bazuen, "CO" zutabean dauden kopuruak kontutan izango ditu.

Aurreko urteetan aplikatu gabeko kopuruak

Lehio honetan, aurreko ekitaldeetan konpentsatzeko geratzen diren kopuruak ikusten dira. Zutabeetan ordainkerak agertzen dira: Banakakoak (D,C,H) eta baterako ordainkera (CO).

Kompentsagarriak diren kopuruen laburpena inprimatu ahal da.

Kontuz, programaren erabiltzaileak, aurreko ekitaldian zein ordainkera aukeratu zuen gogoratu egin behar du.

Banakako ordainkera aukeratu bazuen, D edota C edota H zutabeen jartzen diren kopuruak bakarrik konpentsatu ahal izango ditu. Baina, baterako ordainketa aukeratu bazuen, "CO" zutabeen dauden kopuruak kontutan izango ditu.

ONDAREA

(2/2013 FA, otsailaren 27koa, BAO. 2013-03-04)

SARRERA.

Autolikidazioa aurkeztu behar dutenak

Autolikidazioaren ondorioz zerga ordaindu behar duten zergadunek aurkeztu behar dute autolikidazioa. Dena dela, nahiz eta zerga ordaindu beharrik izan ez, zergadunek beti aurkeztu beharko dute autolikidazioa, baldin eta beren ondasun-eskubideen balioa, zerga honetako arauen arabera zehaztuta, 2.000.000 euro baino handiagoa bada.

Aitorpena aurkeztu behar den lekua

Zerga Bizkaiko Foru Aldundiak eskatuko du honelakoetan:

- a) Zergadunak ohiko egoitza Bizkaian duenean (norberaren betebeharra).

Ohiko egoitza zein den zehazteko, PFEZ.ari buruzko arautegian ezarri diren irizpideak erabiliko dira.

- b) Zergaduna atzerrian bizi bada, ohiko egoitzarako PFEZ.ri buruzko arautegian ezarritako irizpideak hartuko dira aintzat.

Betebehar erreala duten zergadunek egoitza Bizkaian duen pertsona fisiko edo juridiko bat izeneztatu beharko dute, Foru Aldundiari begira ordezkia ditzan.

Aitortu behar dena

Norberaren betebeharraren ziozko zergadunek euren ondare garbi osoa edukiko dute zergapean, ondasunak non dauden edo eskubideak non baliarazten diren kontuan hartu gabe.

Betebehar errearen zioz zergadun direnak zergapean daude Espainiako lurraldean titular diren ondasun eta eskubideei dagokienez, baldin eta haiek Bizkaiko lurraldean badaude edo, lurralde horretan eta Euskadiko beste batean egonik, Bizkaian daudenen balioa gainerako lurralde historikoetan daudenena baino handiagoa bada.

Autolikidazio mota

Autolikidazioa beti BANAKA egingo da. Famili unitateko kideek ezin dute autolikidazioa denek batera aurkeztu.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren autolikidazioarekin batera aurkeztuko da.

Autolikidazioa aurkezteko epea

Maiatzaren 2tik ekainaren 30era arte, denetarikoa autolikidazioetarako.

Salbuetsitako ondarea

Zerga honetatik salbuetsita daude:

- Ohiko etxebizitza, 400.000 euro arte.

- Euskal Herriko Kultur Ondarearen edo Espainiako zein autonomi erkidegoetako ondare historikoen barruan dauden ondasunak, bakoitzari dagokion arautegian ezarritako baldintzak eta beharkizunak betez gero.
- Artelanak eta antzinatekoak, baldin eta horien balioak Euskal Herriko kultur ondarea edo Espainiako ondare historikoa, kasuan kasu, araupetzen duten legeetan ezarritako muga gainditzen ez badu.
- Museoei edo irabazteko asmorik gabeko kultur erakundeei gordailu gisa gutxienez hiru urterako lagatako artelanak eta antzinatekoak.
- Artisten euren obrak, egileen ondareetan dirauten bitartean.
- Etxe ostilamendua, salbu eta bitxiak, larrukiak, ibilgailuak, ontziak eta aireontziak, zergari buruzko arautegian ezarritakoaren arabera.
- Pentsio planetako partaideen eta borondatezko gizarte aurreikuspenetako entitateetako eta bermaturiko aurreikuspen planetako bazkide osoen edo urgazleen eskubide sendotuak.
- Jabetza intelektualak edo industrialak dakartzaten eskubideak, baldin eta egilearen ondarean badiraute eta inongo enpresa jarduerari loturik ez badaude.
- Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 14. artikuluan xedatutakoa dela bide etekinak salbuetsita dituzten baloreak.
- Pertsona fisikoek euren jarduera ekonomikoak garatzeko behar dituzten ondasun eta eskubideak; beti ere, jarduera horiek norberak zuzenean eta iraunkortasunez egin behar ditu eta errenta iturri nagusi izan behar ditu.
- Erakundeetako partaidetzak, merkatu antolatuetan kotizazio ofizialik eduki zein ez, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badira:
 - a) Erakundearen jarduera nagusia higikorren edo higiezinen ondarearen kudeaketa ez izatea.
 - b) Erakundea sozietatea denean, ezin dira gertatu Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 66. artikuluan ezarritako egoerak.
 - c) Zergadunak erakundean duen partaidetza gutxienez %5ekoa izatea, berea soilik kontuan hartuta, edo %20koa bere ezkontide, izatezko bikotekidea, aurreko, ondorengo edo bigarren graduako albo-ahaideekin batera, ahaidetasunaren jatorria odolkidetasuna, ezkontza edo adopzioa izanik.
 - d) Zergadunak erakundean zuzendaritza funtzioak betetzea benetan, eta horren ordaina enpresa, lanbide edo norberaren lanaren etekin guztien %50 baino handiagoa izatea.

Ondare elementuen titulartasuna

Ondasun eta eskubideak beraien titular diren zergadunei eratzikiko zaizkie, kontuan izanik ondasun eta eskubideen titulartasun juridikoari buruzko arauak, ezkontzaren ekonomi araubideari buruzko xedapenak eta zergadunak edo administrazioak ekarritako frogak.

Baldin eta ondasun eta eskubideen titularra sozietate zibil, jaraunspen banatu gabe, ondasun erkidego edo Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 34. artikuluan azaldu diren gainerako erakunderen bat bada, ondasun eta eskubideok, hurrenez hurren, bazkide, jaraunse, erkide edo partaideei eratzikiko zaizkie, kasuan kasu erabil daitezkeen arau edo itunen arabera banaturik, edo, holakorik agertarazita ez badago, zati berdinetan banaturik.

Zergaren sortzapena

Zerga abenduaren 31n sortuko da eta zergadunek egun horretan titular gisa duten ondareari eragingo dio.

Aplikazio informatikoa

Ondare aitortpena egiteko programak oinarritzko pantaila bi ditu:

- 1.- Zerga honen oinarria osatzen duten atal guztiak agertzen dira.
- 2.- Zerga honen likidazioa bistaratzen da.

Zerga oinarria

Zerga honen oinarria zergadunaren ondare garbiaren balioa da. Ondokoen arteko kenketa eginez zehaztuko da:

- a) Zergaduna titulartzat duten ondasun eta eskubideak.
- b) Zergadunak bere gain dituen zama eta kargak, zorrak eta norberaren betebeharrak.

ZERGA OINARRIAREN ATALAK

ONDASUN HIGIEZINAK:

Atal honetan hiri- eta landa- ondasun higiezin guztiak jarriko dira.

Titularra: Adieraziko da nor den ondare elementuen, ondasunen edo eskubideen titularra: aitortzailea ("D"), ezkontidea ("C"), biak ("DC") edo seme-alabetariko bat ("H1", "H2..." H5").

E/P: Zehaztu behar da:

- E: Enpresa-jarduera edo jarduera profesional bati lotutako ondasuna edo halako baten gaineko eskubide erreala.

- P: Enpresa-jarduera edo jarduera profesional bati lotuta ez dagoen ondasuna edo halako baten gaineko eskubide erreala.

Gakoa: Adieraziko da etxebizitza, lokal edo finkari eman zaion erabilera edo xedeari dagokion gakoa.

HA = Ohikoa

UA = Hiri-ondasun alojeratua

RA = Landa-ondasun alojeratua

RU = Gainerako hiri-ondasunak

RR = Gainerako landa-ondasunak

SO = Orubea

CO = Eraikina

MP = Multijabetza

XU = Hiri-ondasun salbuetsita

XR = Landa-ondasun salbuetsita

Kokapena: Zehaztu behar da:

- B: Bizkaiko Lurralde Historikoan dagoen higiezin edo halako baten gaineko eskubidea.
- E: Espainiako lurraldean dagoen higiezin edo halako baten gaineko eskubidea.
- X: Atzerrian dagoen higiezin edo halako baten gaineko eskubidea.

Deskripzioa: Ondasuna ahalik argien eta laburren deskribatu behar da. Hiri-ondasun higiezin kasuan, helbidea zehaztu behar da; landa-ondasun higiezin kasuan, non dagoen zehaztu behar da.

Katastro-erreferentzia: Bizkaiko Lurralde Historikoko hiri-ondasun higiezin zenbaki finkoa jarri behar da edo Bizkaiko Lurralde Historikoko landa-ondasun higiezin edo Espainiako lurraldeko denetariko ondasun higiezin (hirikoak eta landakoak) katastroko erreferentzia. Zenbakia edo erreferentzia Ondasun Higiezin gaineko Zergaren ordainagirian agertzen da.

Ondasunaren balioa guztira: Ondasunaren edo ondasunaren gaineko eskubidearen guztirako balioa jarri behar da, hain zuzen ere abenduaren 31n eduki duena Ondarearen gaineko Zergaren balorazio-arauak aplikatuta.

Ohiko etxebizitzari (HA) dagokionez, balio guztia konputatu behar da. Programak adieraziko du 400.000 euroko zenbatekora arte (gehieneko muga) salbuetsita dagoela.

"Bat. Hiri- edo landa-izaerako ondasun higiezinak honako zenbaki hauetan ezartzen denaren arabera jasoko dira:

a) Bizkaiko Lurralde Historikoan dauden ondasun higiezinak badira: Oro har, haien gutxieneko balio eratzikigarriaren %25 (2016ko ekitalditik aurrera %50). Landa-izaerako ondasun higieziari dagokienez, ez baldin badute gutxieneko balio eratzikigarriak, haien katastro-balioa hartuko da kontuan, baldin eta berrikusi edo aldatu egin bada. Balio hori eguneraturik ez badago, indarreko katastro-balioa bider bost (2016ko ekitalditik aurrera bider hamar) biderkatuko da.

b) Bizkaiko Lurralde Historikotik kanpo dauden ondasun higiezinak badira, katastro-balioaren %50 (2016ko ekitalditik aurrera %100).

c) Ondasun higiezinak ez badaukate katastro-baliorik zergaren sortzapen-unean, edo atzerrian baldin badaude, haien eskuratze-balioaren ehuneko %25 (2016ko ekitalditik aurrera %50) konputatuko da, eta balio hori eguneraturik egon behar da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauan moneta-zuzenketari buruz ezarritako koefizienteak aplikatuta.

Bi. Ondasun higiezinak eraikitze-bidean daudenean, higiezin horretan zergaren sortzapen-egunera arte benetan inbertituriko zenbatekoaren %25 (2016ko ekitalditik aurrera %50) hartuko da ondare-balioz, eta balio horri gehitu egingo zaio artikulu honetan ezarritakoaren arabera orubearentzat kalkulaturiko ondare-balioaren %25a (2016ko ekitalditik aurrera %50a). Jabetza horizontala izanez gero, tituluan finkaturiko ehunekoaren arabera zehaztuko da orubearen balioari dagokion zati proportzionala.

Hiru. Multijabetza kontratuak, denbora partzialeko jabetza-kontratuak edo antzeko formulak erabiliz eskuratutako ondasun higiezin gaineko eskubideak honako erregela hauen arabera balioztatuko dira:

a) Higiezinaren titulartasun partziala badaukate, aurreko Bat ataleko erregelen arabera.

b) Ez badaukate higiezinaren titulartasun partziala, ziurtagirien edo haiek ordezkatzeko dituzten tituluen eskuraketa-prezioaren %25aren arabera (2016ko ekitalditik aurrera %50aren arabera).

Eskuratze-prezioaren %25aren arabera (2016ko ekitalditik aurrera %50aren arabera) balioztatuko dira, beren izaera edozein dela ere, honako lege honek jasotzen dituen eskubideak: 4/2012 Legea, uztailaren 6koa, turismo-ondasunak txandaka aprobetxatzeko kontratuei, iraupen luzeko opor-produktuak eskuratzeko kontratuei, birsaltze-kontratuei eta truke-kontratuei eta zerga-arauei buruzkoa."

Jabetza: Ondasunaren jabetza nolakoa den zehaztu behar ondoko gako hauen bitartez:

- P: jabetza osoa
- N: jabetza soila
- U: gozamina
- O: beste eskubide erreal bat

Jabetza %: Jabetza zutabeen N (jabetza soila) jartzen bada, horren ehunekoa zehaztu behar da; aldiz, zutabe horretan U (gozamina) edo O (beste eskubide erreal bat) jartzen bada, eskubide errealaren ehunekoa zehaztu behar da, ehuneko hau kalkulatzeko Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren eta Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren legerian ezarritako berariazko arauak aplikatu behar dira.

Aldi baterako gozaminen = $(2x \text{ gozamenaren urteak})\%$ Ondasunaren balioa guztira, gehienez ondasunaren guztirako balioaren %70.

Biziarteko gozamina = $(89 - \text{gozamenaren adina})\%$ Ondasunaren balioa guztira, gehienez ondasunaren guztirako balioaren %70 eta gutxienez guztirako balioaren %10.

Jabetza soila = Ondasunaren guztirako balioa - Aldi baterako edo biziarteko gozamina

Erabiltzeko eta biztantzeko eskubide errealak = $\%75 \times$ aldi baterako edo biziarteko gozamina

Titulartasunaren %: Ondasunaren edo eskubidearen partaidetzaren ehunekoa zehaztu behar da.

Zenbatekoa: Programak ondasunaren edo eskubidearen balioa, jabetzaren ehunekoa eta partaidetzaren ehunekoa aplikatuta, kalkulatu du.

Errenta sortzeko gai: Ondasunak edo eskubideak Pertsona Fisikoen Errentaren kargapeko errenta sortzeko gauza denez zehaztu behar da: gauza bada, S; ez bada, N (XU eta XR gakoekin programak 'S' adieraziko du).

ENPRESA ETA LANBIDE JARDUERAK:

Atal honetan enpresa eta lanbide jarduerak EZ SALBUETSIAK adieraziko dira, loturiko ondasun higiezinak sartu gabe.

Titularra. Adieraziko da nor den ondare elementuen, ondasunen edo eskubideen titularra: aitortzailea ("D"), ezkontidea edo izatezko bikotekidea ("C"), biak ("DC") edo seme-alabetariko bat ("H1", "H2..." H5").

Deskripzioa: Jardueraren identifikazio datuak.

Erakundearen IFZ: Erakundearen Identifikazio Fiskaleko Zenbakia adierazi behar da. Zergapekoaren jarduera ekonomikoa erakunde batekoa denean baino ez da bete behar.

Zenbatekoa: Ondasunaren edo ondasunaren gaineko eskubidearen guztirako balioa jarri behar da, hain zuzen ere Ondarearen gaineko Zergaren balorazio-arauekin bat etorritik abenduaren 31n eduki duena, partaidetzaren ehunekoa aplikatuta.

"Pertsona fisikoek ekonomia-jardueri atxikirik ditzuten ondasunak eta eskubideak kontabilitatean duten balioaz hartuko dira kontuan, aktiboaren eta pasiboaren arteko kenketa eginez, baldin eta kontabilitatea Merkataritzako Kodearen arabera eginda badago. Dena dela, ibilgailu, ontzi eta aireontzien kasuan ez da horrela egingo; izan ere, kasu horietan, ondasun horiei gutzietan foru arau honen 12. eta 20. artikuluetan,

hurrenez hurren, ezartzen dena aplikatuz lortzen den balioa erabiliko da, salbu eta kontabilitate-balioa handiagoa denean manu horiek aplikatuz ateratzen dena baino.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren arauen arabera joko dira ondasunak ekonomia-jarduerei atxikitakotzat. Foru arau horren 27. artikuluko 6. eta 7. arauetan aipatzen diren aktiboak, berriz, arau horiek aktiboon gastuak kengarriztat jotzen dituzten hein berean joko dira atxikitat.

Kontabilitaterik ezean, eta kontabilitatea ez bazaio lotzen Merkataritzako Kodeari, zergaren gainerako arauak aplikatzearen emaitza izango da balorazioa."

Jardueraren epigrafea/kodea: Enpresa- eta lanbide-jarduera egiteko erabiltzen den epigrafea/kodea zehaztu behar da.

Errenta sortzeko gai: Ondasunak edo eskubideak Pertsona Fisikoen Errentaren kargapeko errenta sortzeko gauza denez zehaztu behar da: gauza bada, S; ez bada, N.

KONTU KORRONTEKO EDO AURREZKI-KONTUKO GORDAILU AGERIKOAK EDO EPERAKOAK:

Pantaila honetan datu hauek eman behar dira:

Titularra: Adieraziko da nor den ondare elementuen, ondasunen edo eskubideen titularra: aitortzailea ("D"), ezkontidea ("C"), biak ("DC") edo seme-alabetariko bat ("H1", "H2..." H5").

Gakoa: Programak 'C' gakoa adieraziko du.

Kokapena: Hauxe zehaztu behar da:

- N: Espainiako estatuan dauden ondasunak eta eskubideak, Bizkaiko Lurralde Historikoan daudenak barne.

- X: Atzerrian dauden ondasunak eta eskubideak.

Deskripzioa: Gordailua ahalik argien eta laburren deskribatu behar da.

Identifikazioa: Gordailua identifikatu behar da: IBAN kodea, ...

Balore kop.: Atal hau ez dago aktibo.

Ondasunaren balioa guztira: Gordailuaren guztirako balioa jarri behar da, hain zuzen ere abenduaren 31n eduki duena Ondarearen gaineko Zergaren balorazio-arauak aplikatuta.

"Hirugarrenen konturakoak ez diren kontu korronteko edo aurrezki-kontuko gordailu agerikoak edo eperakoak, bai eta diruzaintza-kudeaketako kontuak nahiz finantza-kontuak eta antzerakoak ere, zergaren sortzapen-egunean duten saldoaz hartuko dira kontuan, baldin eta saldo hori urteko azken hiruhilekoko batez besteko saldoa baino txikiagoa ez bada, orduan azken hori aplikatuko baita."

Titulartasunaren %: Ondasunaren edo eskubidearen partaidetzaren ehunekoa zehaztu behar da.

Zenbatekoa: Programak gordailuaren balioa, partaidetzaren ehunekoa aplikatuta, kalkulatu du.

Errenta sortzeko gai: Ondasunak edo eskubideak Pertsona Fisikoen Errentaren kargapeko errenta sortzeko gauza denez zehaztu behar da: gauza bada, S; ez bada, N.

BALORE HIGIGARRIAK:

Pantaila honetan datu hauek eman behar dira:

Titularra: Adieraziko da nor den ondare elementuen, ondasunen edo eskubideen titularra: aitortzailea ("D"), ezkontidea ("C"), biak ("DC") edo seme-alabetariko bat ("H1", " H2..." H5").

Gakoa: Adieraziko da zein motatakoa den higigarrien kapitala gako hauek erabiliz, Ondarearen gaineko Zergaren ondoretarako:

PC = Kotizaziodun sozietateetako partaidetza

PN = Kotizazio gabeko sozietateetako partaidetza

DP = Kotizaziodun herri zor, obligazio eta bonuak

P1 = Kotizaziodun inbertsio fondoetako partaidetza

O1 = Kotizaziodun bestelako tituluak

OB = Kotizazio gabeko obligazio eta bonuak

P2 = Kotizazio gabeko inbertsio fondoetako partaidetza

O2 = Kotizazio gabeko bestelako tituluak

Kokapena: Hauxe zehaztu behar da:

- N: Espainiako estatuan dauden balore higigarriak, Bizkaiko Lurralde Historikoan daudenak barne.
- X: Atzerrian dauden balore higigarriak.

Deskripzioa: Balore higigarria ahalik argien eta laburren deskribatu behar da.

Identifikazioa: Balore higigarria identifikatu behar da: IBAN kodea, ISIN kodea, ...

Balore kop.: Baloreen kopurua jarriko da.

Ondasunaren balioa guztira: Balore higigarriaren guztirako balioa jarri behar da, hain zuzen ere abenduaren 31n eduki duena Ondarearen gaineko Zergaren balorazio-arauak aplikatuta.

"Kapital propioak hirugarrenei lagatzea ordezkatzan duten baloreak, merkatu antolatuetan negoziatzen badira, zergaren sortzapen-unean duten negoziazio-balioaren arabera konputatuko dira.

Kapital propioak hirugarrenei lagatzea ordezkatzan duten beste baloreak (alegia, aurreko paragrafoak ez direnak) balio nominalaren arabera konputatuko dira, eta amortizazio- edo itzulketa-primarik egonez gero, prima horiek ere batuko zaizkio balio horri.

Edozein motatako erakundeen funts propioetako partaidetza ordezkatzan duten baloreak, merkatu antolatuetan negoziatuak: Edozein motatako erakundeen kapital sozialeko edo funts propioetako akzioak edo partaidetzak, merkatu antolatuetan negoziatzen badira, zergaren sortzapen-unean duten negoziazio-balioaren arabera konputatuko dira; inbertsio kolektiboko erakundeen akzioak eta partaidetzak, ordea, ez dira horrela konputatuko.

Edozein motatako erakundeen funts propioetako partaidetza ordezkatzan duten gainerako baloreak: Aurreko paragrafoan aipatzen ez diren akzio eta partaidetzei dagokienez, azkenengo balantze onartuaren ondoriozko balio teorikoaren arabera egingo da haien balorazioa."

Titulartasunaren %: Ondasunaren edo eskubidearen partaidetzaren ehunekoak zehaztu behar da.

Zenbatekoa: Programak ondasun higigarriaren balioa, partaidetzaren ehunekoak aplikatuta, kalkulatu du.

Errenta sortzeko gai: Ondasunak edo eskubideak Pertsona Fisikoen Errentaren kargapeko errenta sortzeko gauza denez zehaztu behar da: gauza bada, S; ez bada, N.

BIZITZA ASEGURUAK ETA BIZIARTEKO ERRENTAK:

Titularra: Adieraziko da nor den ondare elementuen, ondasunen edo eskubideen titularra: aitortzailea ("D"), ezkontidea edo izatezko bikotekidea ("C"), biak ("DC") edo seme-alabetariko bat ("H1", "H2..." "H5").

Gakoa: Hauxe zehaztu behar da:

- E: bizi-asegurua
- F: biziarteko edo aldi baterako errenta

Kokapena: Hauxe zehaztu behar da:

- N: Espainiako lurraldean kokatutako edo gordailatutako edo bertan gauzatu behar diren ondasunak eta eskubideak, Bizkaiko Lurralde Historikoan daudenak barne.

- X: atzerrian kokatutako edo gordailatutako ondasunak eta eskubideak, edo bertan gauzatu behar direnak.

Deskripzioa: Ondasuna edo eskubidea ahalik argien eta laburren deskribatu behar da.

Zenbatekoa: Ondasunaren edo eskubidearen guztirako balioa jarri behar da, hain zuzen ere Ondarearen gaineko Zergaren balorazio-arauekin bat etorritik abenduaren 31n eduki duena, partaidetzaren ehunekoak aplikatuta.

Bizitza aseguruak Zergaren sortzapen egunean izan duten erreskate-balioaren arabera konputatuko dira. Aldi baterako edo biziarteko errentak Zergaren sortzapen egunean izan duten kotizazio-balioaren arabera konputatu behar dira. Horretarako pentsioen eraketari buruzko arauak erabiliko dira, hain zuzen ere Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan.

Identifikazioa: Ondasuna edo eskubidea identifikatu behar da: polizaren zenbakia, kontuaren zenbakia, ...

Errenta sortzeko gai: Ondasunak edo eskubideak Pertsona Fisikoen Errentaren kargapeko errenta sortzeko gauza denez zehaztu behar da: gauza bada, S; ez bada, N.

BITXIAK, LARRUKIAK, IBILGAILUAK, ONTZIAK:

Titularra: Adieraziko da nor den ondare elementuen, ondasunen edo eskubideen titularra: aitortzailea ("D"), ezkontidea edo izatezko bikotekidea ("C"), biak ("DC") edo seme-alabetariko bat ("H1", "H2..." "H5").

Gakoa: Hauxe zehaztu behar da:

- G: bitxia edo luxuzko larrua
- H: ibilgailua, itsasontzia edo aireontzia

Kokapena: Hauxe zehaztu behar da:

- N: Espainiako lurraldean kokatutako edo gordailatutako edo bertan gauzatu behar diren ondasunak eta eskubideak, Bizkaiko Lurralde Historikoan daudenak barne.

- X: atzerrian kokatutako edo gordailatutako ondasunak eta eskubideak, edo bertan gauzatu behar direnak.

Deskripzioa: Ondasuna edo eskubidea ahalik argien eta laburren deskribatu behar da.

Zenbatekoa: Ondasunaren edo eskubidearen guztirako balioa jarri behar da, hain zuzen ere Ondarearen gaineko Zergaren balorazio-arauekin bat etorritik abenduaren 31n eduki duena, partaidetzaren ehunekoa aplikatuta.

Bitxiak, luxuzko larruak, automobilak, 125 cc-ko edo gehiagoko zilindrada duten 2 edo 3 gurpileko ibilgailuak, josteta edo ur-kiroletarako ontziak, abioiak, abionetak, beladun ontziak eta gainerako aireontziak, zergaren sortzapen egunean merkatuan izan duten balioaren arabera konputatuko dira.

Zergadunek, merkatuko balioa zehazteko, ibilgailu erabiliak OE eta EJDZ.aren eta Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren ondoretarako baloratzeko taulak erabili ahal izango dituzte, zerga honen sortzapen egunean indarrean egon direnak.

Identifikazioa: Ondasuna edo eskubidea identifikatu behar da: bastidorearen zenbakia, ...

Errenta sortzeko gai: Ondasunak edo eskubideak Pertsona Fisikoen Errentaren kargapeko errenta sortzeko gauza denez zehaztu behar da: gauza bada, S; ez bada, N.

ARTELANAK ETA ANTZINATEKOAK:

Titularra: Adieraziko da nor den ondare elementuen, ondasunen edo eskubideen titularra: aitortzailea ("D"), ezkontidea edo izatezko bikotekidea ("C"), biak ("DC") edo seme-alabetariko bat ("H1", "H2..." "H5").

Gakoa: Programak 'I' gakoa adieraziko du.

Kokapena: Hauxe zehaztu behar da:

- N: Espainiako lurraldean kokatutako edo gordailatutako edo bertan gauzatu behar diren ondasunak eta eskubideak, Bizkaiko Lurralde Historikoan daudenak barne.

- X: atzerrian kokatutako edo gordailatutako ondasunak eta eskubideak, edo bertan gauzatu behar direnak.

Deskripzioa: Ondasuna edo eskubidea ahalik argien eta laburren deskribatu behar da.

Zenbatekoa: Ondasunaren edo eskubidearen guztirako balioa jarri behar da, hain zuzen ere Ondarearen gaineko Zergaren balorazio-arauekin bat etorritik abenduaren 31n eduki duena, partaidetzaren ehunekoa aplikatuta.

Artelanak eta antzinatekoak zergaren sortzapen egunean merkatuan izan duten balioaren arabera konputatuko dira.

Identifikazioa: Ondasuna edo eskubidea identifikatu behar da.

Errenta sortzeko gai: Ondasunak edo eskubideak Pertsona Fisikoen Errentaren kargapeko errenta sortzeko gauza denez zehaztu behar da: gauza bada, S; ez bada, N.

ESKUBIDE ERREALAK:

(Higiezinak izan ezik)

Titularra: Adieraziko da nor den ondare elementuen, ondasunen edo eskubideen titularra: aitortzailea ("D"), ezkontidea edo izatezko bikotekidea ("C"), biak ("DC") edo seme-alabetariko bat ("H1", "H2..." H5").

Gakoa: Programak 'J' gakoa adieraziko du.

Kokapena: Hauxe zehaztu behar da:

- N: Espainiako lurraldean kokatutako edo gordailatutako edo bertan gauzatu behar diren ondasunak eta eskubideak, Bizkaiko Lurralde Historikoan daudenak barne.

- X: atzerrian kokatutako edo gordailatutako ondasunak eta eskubideak, edo bertan gauzatu behar direnak.

Deskripzioa: Ondasuna edo eskubidea ahalik argien eta laburren deskribatu behar da.

Zenbatekoa: Ondasunaren edo eskubidearen guztirako balioa jarri behar da, hain zuzen ere Ondarearen gaineko Zergaren balorazio-arauekin bat etorritz abenduaren 31n eduki duena, partaidetzaren ehunekoa aplikatuta.

Gozamen-eskubide errealak eta jabetza soila Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan adierazitako irizpideen arabera balioztatuko dira.

Identifikazioa: Ondasuna edo eskubidea identifikatu behar da.

Errenta sortzeko gai: Ondasunak edo eskubideak Pertsona Fisikoen Errentaren kargapeko errenta sortzeko gauza denez zehaztu behar da: gauza bada, S; ez bada, N.

ADMINISTRAZIO EMAKIDAK:

Titularra: Adieraziko da nor den ondare elementuen, ondasunen edo eskubideen titularra: aitortzailea ("D"), ezkontidea edo izatezko bikotekidea ("C"), biak ("DC") edo seme-alabetariko bat ("H1", "H2..." H5").

Gakoa: Programak 'K' gakoa adieraziko du.

Kokapena: Hauxe zehaztu behar da:

- N: Espainiako lurraldean kokatutako edo gordailatutako edo bertan gauzatu behar diren ondasunak eta eskubideak, Bizkaiko Lurralde Historikoan daudenak barne.

- X: atzerrian kokatutako edo gordailatutako ondasunak eta eskubideak, edo bertan gauzatu behar

direnak.

Deskripzioa: Ondasuna edo eskubidea ahalik argien eta laburren deskribatu behar da.

Zenbatekoa: Ondasunaren edo eskubidearen guztirako balioa jarri behar da, hain zuzen ere Ondarearen gaineko Zergaren balorazio-arauekin bat etorritik abenduaren 31n eduki duena, partaidetzaren ehunekoa aplikatuta.

Herri jabariko edo herri titulartasuneko zerbitzuak edo ondasunak ustiatzeko administrazio emakidak, haien iraupena gorabehera, OEZ ari buruz ezarri diren irizpideen arabera baloratuko dira.

Identifikazioa: Ondasuna edo eskubidea identifikatu behar da.

Errenta sortzeko gai: Ondasunak edo eskubideak Pertsona Fisikoen Errentaren kargapeko errenta sortzeko gauza denez zehaztu behar da: gauza bada, S; ez bada, N.

JABETZA INTELEKTUALAREN ESKUBIDEAK:

Titularra: Adieraziko da nor den ondare elementuen, ondasunen edo eskubideen titularra: aitortzailea ("D"), ezkontidea edo izatezko bikotekidea ("C"), biak ("DC") edo seme-alabetariko bat ("H1", "H2..." "H5").

Gakoa: Programak 'L' gakoa adieraziko du.

Kokapena: Hauxe zehaztu behar da:

- N: Espainiako lurraldean kokatutako edo gordailatutako edo bertan gauzatu behar diren ondasunak eta eskubideak, Bizkaiko Lurralde Historikoan daudenak barne.

- X: atzerrian kokatutako edo gordailatutako ondasunak eta eskubideak, edo bertan gauzatu behar direnak.

Deskripzioa: Ondasuna edo eskubidea ahalik argien eta laburren deskribatu behar da.

Zenbatekoa: Ondasunaren edo eskubidearen guztirako balioa jarri behar da, hain zuzen ere Ondarearen gaineko Zergaren balorazio-arauekin bat etorritik abenduaren 31n eduki duena, partaidetzaren ehunekoa aplikatuta.

Jabetza intelektualak edo industri jabetzak dakartzan eskubideak, gainontzeoengandik eskuratuak direnean, euren eskuraketa balioaren arabera agertarazi behar dira eskuratzailaren ondarean.

Identifikazioa: Ondasuna edo eskubidea identifikatu behar da.

Errenta sortzeko gai: Ondasunak edo eskubideak Pertsona Fisikoen Errentaren kargapeko errenta sortzeko gauza denez zehaztu behar da: gauza bada, S; ez bada, N.

KONTRATU AUKERAK:

Titularra: Adieraziko da nor den ondare elementuen, ondasunen edo eskubideen titularra: aitortzailea ("D"), ezkontidea edo izatezko bikotekidea ("C"), biak ("DC") edo seme-alabetariko bat ("H1", "H2..." "H5").

Gakoa: Programak 'M' gakoa adieraziko du.

Kokapena: Hauxe zehaztu behar da:

- N: Espainiako lurraldean kokatutako edo gordailatutako edo bertan gauzatu behar diren ondasunak eta eskubideak, Bizkaiko Lurralde Historikoan daudenak barne.

- X: atzerrian kokatutako edo gordailatutako ondasunak eta eskubideak, edo bertan gauzatu behar direnak.

Deskripzioa: Ondasuna edo eskubidea ahalik argien eta laburren deskribatu behar da.

Zenbatekoa: Ondasunaren edo eskubidearen guztirako balioa jarri behar da, hain zuzen ere Ondarearen gaineko Zergaren balorazio-arauekin bat etorritik abenduaren 31n eduki duena, partaidetzaren ehunekoa aplikatuta.

Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari begira ezarrita dauden irizpideen arabera baloratuko dira.

Identifikazioa: Ondasuna edo eskubidea identifikatu behar da.

Errenta sortzeko gai: Ondasunak edo eskubideak Pertsona Fisikoen Errentaren kargapeko errenta sortzeko gauza denez zehaztu behar da: gauza bada, S; ez bada, N.

GAINERAKO ONDASUN ETA ESKUBIDEAK:

Titularra: Adieraziko da nor den ondare elementuen, ondasunen edo eskubideen titularra: aitortzailea ("D"), ezkontidea edo izatezko bikotekidea ("C"), biak ("DC") edo seme-alabetariko bat ("H1", "H2..." H5").

Gakoa: Programak 'N' gakoa adieraziko du.

Kokapena: Hauxe zehaztu behar da:

- N: Espainiako lurraldean kokatutako edo gordailatutako edo bertan gauzatu behar diren ondasunak eta eskubideak, Bizkaiko Lurralde Historikoan daudenak barne.

- X: atzerrian kokatutako edo gordailatutako ondasunak eta eskubideak, edo bertan gauzatu behar direnak.

Deskripzioa: Ondasuna edo eskubidea ahalik argien eta laburren deskribatu behar da.

Zenbatekoa: Ondasunaren edo eskubidearen guztirako balioa jarri behar da, hain zuzen ere Ondarearen gaineko Zergaren balorazio-arauekin bat etorritik abenduaren 31n eduki duena, partaidetzaren ehunekoa aplikatuta.

Zergaren sortzapen egunean merkatuan izan duten balioaren arabera konputatuko dira.

Identifikazioa: Ondasuna edo eskubidea identifikatu behar da.

Errenta sortzeko gai: Ondasunak edo eskubideak Pertsona Fisikoen Errentaren kargapeko errenta sortzeko gauza denez zehaztu behar da: gauza bada, S; ez bada, N.

ENPRESA ETA LANBIDE JARDUERAK SALBUETSIAK:

Atal honetan enpresa eta lanbide jarduerak SALBUETSIAK adieraziko dira, loturiko ondasun higiezinak sartu gabe.

Titularra: Adieraziko da nor den ondare elementuen, ondasunen edo eskubideen titularra: aitortzailea ("D"), ezkontidea edo izatezko bikotekidea ("C"), biak ("DC") edo seme-alabetariko bat ("H1", " H2..." H5").

Deskripzioa: Jardueraren identifikazio datuak.

Erakundearen IFZ: Erakundearen Identifikazio Fiskaleko Zenbakia adierazi behar da. Zergapekoaren jarduera ekonomikoa erakunde batekoa denean baino ez da bete behar.

Zenbatekoa: Ondasunaren edo ondasunaren gaineko eskubidearen guztirako balioa jarri behar da, hain zuzen ere Ondarearen gaineko Zergaren balorazio-arauekin bat etorritik abenduaren 31n eduki duena, partaidetzaren ehunekoa aplikatuta.

Jardueraren epigrafea/kodea: Enpresa- eta lanbide-jarduera egiteko erabiltzen den epigrafea/kodea zehaztu behar da.

Errenta sortzeko gai: Programak 'S' adieraziko du.

PARTAIDETZA SALBUETSIAK:

Pantaila honetan datu hauek eman behar dira:

Titularra: Adieraziko da nor den ondare elementuen, ondasunen edo eskubideen titularra: aitortzailea ("D"), ezkontidea ("C"), biak ("DC") edo seme-alabetariko bat ("H1", " H2..." H5").

Gakoa: Programak 'PE' gakoa adieraziko du:

Kokapena: Hauxe zehaztu behar da:

- N: Espainiako estatuan dauden gordailuak eta balore higigarriak, Bizkaiko Lurralde Historikoan daudenak barne.

- X: Atzerrian dauden gordailuak eta balore higigarriak.

Deskripzioa: Gordailua edo balore higigarria ahalik argien eta laburren deskribatu behar da.

Identifikazioa: Gordailua edo balore higigarria identifikatu behar da: IBAN kodea, ISIN kodea, ...

Balore kop.: Baloreen kopurua jarriko da.

Ondasunaren balioa guztira: Gordailuaren edo balore higigarriaren guztirako balioa jarri behar da, hain zuzen ere abenduaren 31n eduki duena Ondarearen gaineko Zergaren balorazio-arauekin aplikatuta.

Titulartasunaren %: Ondasunaren edo eskubidearen partaidetzaren ehunekoa zehaztu behar da.

Zenbatekoa: Gordailuaren edo ondasun higigarriaren balioa, partaidetzaren ehunekoa aplikatuta, jarri behar da.

Errenta sortzeko gai: Programak 'S' adieraziko du.

ZORRAK:

Titularra: Adieraziko da nor den ondare elementuen, ondasunen edo eskubideen titularra: aitortzailea ("D"), ezkontidea edo izatezko bikotekidea ("C"), biak ("DC") edo seme-alabetariko bat ("H1", "H2..." "H5").

Gakoa: Programak 'O' gakoa adieraziko du.

Kokapena: Hauxe zehaztu behar da:

- N: Espainiako lurraldean kokatutako edo gordailatutako edo bertan gauzatu behar diren ondasunak eta eskubideak, eta zorrak, Bizkaiko Lurralde Historikoan daudenak barne.

- X: atzerrian kokatutako edo gordailatutako ondasunak eta eskubideak, eta zorrak, edo bertan gauzatu behar direnak.

Deskripzioa: Ondasuna, eskubidea edo zorra ahalik argien eta laburren deskribatu behar da.

Zenbatekoa: Ondasunaren, eskubidearen edo zorraren guztirako balioa jarri behar da, hain zuzen ere Ondarearen gaineko Zergaren balorazio-arauekin bat etorritik abenduaren 31n eduki duena, partaidetzaren ehunekoa aplikatuta.

Zorrak Zergaren sortzapen egunean izan duten balio izendatuaren arabera baloratuko dira, eta behar bezala frogaturik egon ezean ez dira kengarriak izango. Salbuetsitako ondasunen ziozko zorrak ez dira konputatuko.

Identifikazioa: Ondasuna edo eskubidea identifikatu behar da: maileguaren erreferentzia zenbakia edo, halakorik ezean, mailegu-emailearen IFZ (erakundea edo pertsona fisikoa izan daiteke).

Hasierako balioa: Zorrak hasieran eduki duen balioa zehaztu behar da.

Errenta sortzeko gai: Ondasunak edo eskubideak Pertsona Fisikoen Errentaren kargapeko errenta sortzeko gauza denez zehaztu behar da: gauza bada, S; ez bada, N.

ONDAREAREN LIKIDAZIOA

Ondasunak eta eskubideak, guztira: Programak batu egingo ditu ondasun eta eskubideei buruzko ataletan adierazi diren zenbatekoak.

Zorrak, guztira: Programak batu egingo ditu Zorrak atalean adierazi diren zenbatekoak.

Zerga-oinarria: Programak "Ondasunak eta eskubideak, guztira" eta "Zorrak, guztira" kopuruen arteko diferentzia kalkulatu du.

Txikipena: 800.000 €

Likidazio-oinarria: Programak "Zerga-oinarria" eta "Txikipena" kopuruen arteko diferentzia kalkulatu du.

Ondasun eta eskubide salbuetsiak, karga-tasa zehazteko izan ezik: Behar den kasuetan lauki honetan

ondasun eta eskubide hauen zenbatekoa jarri behar da: Espainiak zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmena sinatuta daukan estatu batean dauden edo erabili behar diren ondasunak eta eskubideak.

Zergaren kargatik salbuetsita egon arren kontuan eduki behar direnak zerga-oinarriko gainerako ondasunei eta eskubideei aplikatu beharreko karga-tasa kalkulatzeko.

Kuota osoa: "Likidazio-oinarria" kopuruari Zergaren taulan ageri den portzentajea aplikatuz sortzen den kopurua. Programak berez kalkulatu du.

Errenta sortu ez duten ondasunak: Ondarekoak izan arren errenta sortzen ez dutenak. "Errenta sortzeko gai" atalean 'N' gakoa jarri bada programak zenbatekoa kalkulatu du.

Sartzeko dibidenduak: PFEZren zerga oinarriari (mugaren kalkulurako) Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko bosgarren xedapen gehigarriko 1. zenbakian aipatzen den dibidenduen eta mozkinetako partaidetzen zenbatekoa batuko zaio.

Jabetza soilaren etekin konputagarriak: Zergadunari Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan dagokion oinarriari batu behar zaizkio bai zergadunak jabetza soilan dituen ondasunen etekinen zenbatekoa, bai eta gozamina ere, honako kasu hauetan.

a) Zergadunak honako hauetako bati esleitu badio: ezkontidea, izatezko bikotekidea (maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoarekin bat eratutako izatezko bikotea bada), aurrekoak, ondorengoak edo bigarren graduko albo-ahaideak (ahaidetasunaren jatorria odolkidetasuna, ezkontza, izatezko bikotearen eraketa edo adopzioa izan daiteke), edo Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 42. artikulua ezartzen denaren arabera pertsona edo erakunde lotuzat jotzen den pertsona edo erakunde bat.

b) Zergadunak hirugarren bati eskualdatu badio, zerga honen sortzapenaren aurreko bost urteetan.

Kasu batean zein bestean, aurkakorik frogatu ezean, ondasun horien gozamenari dagokion urteko etekina hau dela ulertuko da: ondasunon jabetza osoa dela-eta konputatu beharreko balioaren %5, foru arau honen 12-26. artikuluetan xedatzen denaren arabera.

Dohaineko eskualdaketa konputagarriak: Zergadunaren ondarean sartuko dira zergadunak zergaren sortzapena aurreko bost ekitaldietan dohain eskualdatutako ondasunak, salbu eta egiaztatzen denean dohaintza-hartzaileak Ondarearen gaineko Zergan benetan tributatu duela, ondasun horien balioaren besteko zenbateko bat dela-eta. Arau hori ez zaie aplikatuko, ordea, 2004ko otsailaren 24ko 1/2004 Foru Arauko 18. artikuluan aipatzen diren erakundeei dohain emandako ondasunei (arau hori irabazizkoak ez diren erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzkoa da).

Kuotaren mugaren gaineko gairikina: PFEZaren kuota osoaren eta Ondarearen kuota osoaren batukaria ezin izan daiteke PFEZaren zerga oinarri orokorraren eta aurrezpenaren oinarriaren %65 baino handiagoa. Gairikinarekin zenbatekoa Ondarearen gaineko Zergaren kuota osoari kendu behar zaio.

Kuota txikitua: Ondarearen gaineko Zergaren kuota osoa goian aipatu den gairikinarekin zenbatekoan gutxituko da. Gutxipenak ez du %75 gairikitu behar.

Atzerriko zergen ziozko kenkaria: Atal honetan kenkaria egin daiteke Espainiatik kanpo dauden ondasunengatik edota Espainiatik kanpo baliatzen diren edo bete behar diren eskubideengatik. Kenkariaren zenbatekoa kopuru biotatik txikiena izango da:

a) zerga honi begira konputatu diren ondare elementuen zioz atzerrian benetan ordaindutako beste antzeko zerga baten zenbatekoa.

b) atzerrian zergapetuta dagoen oinarri likidagarriaren zatiari zergaren batez besteko benetako tasa ezartzetik ateratzen den emaitza.

Batez besteko benetako karga-tasatzat kopuru hau hartuko da: eskala aplikatuz ateratzen den kuota osoa zati oinarri likidagarria bider ehun. Batez besteko benetako karga-tasa bi hamartarrekin adierazi behar

da.

Aitorpen osagarria: Atal hau markatu behar da aitorpen osagarria aurkezten denean

Lehen sartutakoa, guztira: Atal hau aitorpen osagarria egitean bete behar da, aurreko autolikidazioan zerbait ordaindu bada. Ordaindutakoa behin-behineko likidazio baten ondoriozkoa bada, zerga zorraren % 100 jarriko da, eta bestela aurkeztutako autolikidazioaren (aitorpena) ondorioz sartu beharreko zerga zorraren % 100.

X emaitza zero bada: Aitorpen osagarria egiten ari bazara eta aurreko behin-behineko likidazioaren / autolikidazioaren emaitza zero izan bada, atal hau bete behar duzu.

Emaitza PFEZ batera ordainduz: PFEZ batera ordaintzea hautatuz gero sartu beharreko kopurua.

Emaitza PFEZ banaka ordainduz: PFEZ banaka ordaintzea hautatuz gero sartu beharreko kopurua.

OHARRAK

Pantaila honetan erabiltzaileak nahi dituen datuak argitu edo gogoraz ditzake edo informazioa eman dezake.

Pantaila honetan hauxe egin daitezke:

- Aitorpena egiten ari denak hurrengo urteko aitorpena egiteko beharko dituen datuak adieraz ditzake; izan ere, programak aurreko ekitaldiko identifikazio-datuak eta oharrak berreskuratuko ditu.
- Aitorpena nola egin den azaltzen duten ohar informatiboak sar ditzake. Horretarako oharrak inprimatu behar ditu eta errenta aitorpenari atxiki.

Oharrak pantailatik bertatik inprima daitezke "inprimatu" sakatuta edo "Inprimatu \ Errenta aitorpenaren zirriborroa" hautatuta.

ABISUAK

Pantaila honetan erabiltzaileari errenta aitorpena egiten lagunduko dioten mezu informatiboak (ez dira nahitaezkoak) agertuko dira.

Hauen berri emango dute:

- Aitorpenaren modalitatea (arrunta, laburtua, osagarria, etab.).
- Nahitaezkoak ez diren datuak falta direla (zerga esleipena, banku helbideratzea, telefonoa, e-maila, etab.).
- Filiatutako kideen eta konputatutako famili kenkarien (ondorengoak, aurrekoak, desgaituak, etab.) arteko desadostasunak.

Frogagiriak Honen bidez frogagiriak aurkeztu behar diren atalak bistaritzen dira (aitorpenak Internet bidez bidaltzen badira, ez).

BESTE AUKERAK

Errentaren zergei lotuta, programaren bidez ondorengo agiriak bete ahal dira:

- Zuzentze idatzia.
- Agindeiaren erantzuna.
- Berraztertzeko errekurtsua.

Aurreko aukera bat aitorpenaren barruan erabiltzen bada, filiazioaren datuak automatikoki beteko dira (aitortzailarenak, ezkotidearenak edo izatezko bikotekidearenak, ...). Edozein kasuan, dagokion agiria inprimatzen denean, programak, gutxieneko datuak bete direla edo balidazioa egin dela kontrolatuko du.

Bilatu botoia: Zergadunak sortutako dokumentuen zerrenda ikusten da. Aukera honi dagokion pantailaren barruan, aurrez betetako dokumentua aldatzeko aukera dago.